

# HIZKUNTZAK GALTZEA

**ZERGATIK HILTZEN DIRA HIZKUNTZAK?**

EGILEA: EDURNE FERNÁNDEZ DE ANTONA ULIBARRI

## **LABURPENA**

HIZNET ikastarorako lanaren gaia aukeratzeko orduan, hizkuntza heriotzarena aukeratu nuen bi arrazoiengatik nagusiki:

Alde batetik, egun hizkuntza heriotzaren kontua askoren ahotan dabilen arren, horren inguruan nuen ezagutza azalekoa baino ez zela iruditzen zitzaidalako. Horretan sakontzeko asmoz, beraz.

Eta bestetik, hizkuntza gutxitu baten hiztuna naizen aldetik, hurbileko gaia gertatzen zaidalako.

Lanari hasiera emateko eta, lehen esan dudan moduan, gaiaren gainean nuen ezagutza azalekoa baino ez zenez, interesgarria iruditu zitzaidan dagoeneko hilda dauden hainbat hizkuntza biltzea. Horren bidez konturatu ahal izan naiz denak hilda egon arren, guztiak ez daudela egoera berean; izan ere, batzuen inguruko testigantza ugari ditugu (latina, grekoa etab), eta horiei esker gaur egun hizkuntza horiek ikasi eta lehengo testuak uler ditzakegu, baina beste kasu batzuetan testigantzak hain dira urriak (iberiera etab), non hizkuntza berreraikitzea eta ulertzea izugarri zaila gertatzen den.

Penagarria benetan, hizkuntza ez ulertzeak ulertezin bihurtzen digulako herri horretako kulturaren zati handi bat. Dena den, badirudi hizkuntzak galtzen direlako pena hori, nahiko sentipen pertsonala dela; zelan azaldu, bestela, hizkuntzak galtzen ari diren erritmo azkarra?

Galdera horri erantzuteko “axolagabekeria” hitza etortzen zait burura, baina azaleko erantzun horren orde, axolagabekeriari sakoneko azalpena bilatzen ahalegindu naiz “zergatik ez gara hizkuntza dibertsitatearen galerarekin kezkatzen?” izeneko hirugarren atalean.

Ondo dago azaltzea zergatik ez garen kezkatzen, baina lan honen bidez jendearengan hizkuntza gutxituekiko kezka ere sortu nahi dut, horrela jendeak hizkuntzak gehiago babes ditzan. Horretarako, laugarren atalean, hizkuntza dibertsitatea zaindu behar dugula azaltzen dudan horretan, hizkuntza aniztasunaren aldeko argudioak bilatu eta bildu ditut.

Hizkuntza aniztasunaren inguruko mitoei oinarria kendu, eta hizkuntza dibertsitatearen aldeko argudioak emanda, lan honen irakurleei zer pentsatua eman ostean, garrantzizkoa iruditu zait gaur egun munduan dauden hizkuntzen errepasoa egitea, kopuru zein egoeraren aldetik, irakurlea kontura dadin kontinente guztietan daudela hizkuntzak arriskuan, eta benetan egoera kezkarria dela.

Ondoren, hizkuntza heriotzaren kausak biltzen saiatu naiz, edozein arazo konpondu nahi dugunean, lehenengo eginbeharra kausak topatzea baita, eta kausa horiek adieraziko digutelako nola konpondu. Baina askotan, arazoa edo gaixotasuna izan, eta berandu den arte ez gara konturatzen arazo edo gaixotasun hori dugunik. Hizkuntza gutxituen kasuan gauza bera gerta ez dadin, zortzigarren ( noiz esaten dugu hizkuntza bat arriskuan dagoela?) eta bederatzigarren ataletan (hizkuntzaren egoera) topa daitezke gaixorik dauden hizkuntzen sintomak, edo gutxienez, hizkuntzaren barruan kontuan hartu beharreko arloak.

Hizkuntzaren galeraz, kausez eta sintomez hitz egin dudan gai triste honi amaiera zoriontsua nolabait ematearren, hamargarren atalean (ba ote dago hizkuntza biziberritzerik?) eta hizkuntza gutxitu guztiei adorea emateko, esperantzarako aukera ematen duten hizkuntzen zenbait adibide bildu ditut.

Lan honek hizkuntza gutxituen galerarekiko kezka zabaldu eta horren inguruan hausnartzeko balioko duelakoan, amaiera ematen diot laburpen honi, eta hona aurkibidea.

## **AURKIBIDEA**

### **1. SARRERA**

### **2. HILDAKO HIZKUNTZA EZAGUNAK**

### **3. ZERGATIK EZ GARA HIZKUNTZA DIBERTSITATEAREN GALERAREKIN KEZKATZEN?:**

**Babeleko dorrearen mitoa**

**Munduko hizkuntzen sailkapen tipologikoa**

**Hizkuntza batzuk primitiboak dira:**

- Hiztegi murrizta dute
- Gramatika pobrea dute
- Ez dute ideia abstraktuak erabiltzeko balio
- Ez dute mundu aurreraturako balio

- **Hizkuntza batzuk besteak baino errazagoak dira ikasten**

### **4. HIZKUNTZA DIBERTSITATEA ZAINDU BEHAR DUGU**

- **Egungo hizkuntza handiak ez dira beti handiak izan**
- **Hizkuntza identitatearentzat oso inportantea da**
- **Hizkuntza komunitatearen historiaren isla da**
- **Hizkuntzak beren hiztunentzat ez ezik, gainerako hizkuntzen hiztunentzat ere garrantzizkoak dira**

### **5. ZENBAT HIZKUNTZA DAUDE MUNDUAN**

### **6. MUNDUKO HIZKUNTZAK**

### **7. HIZKUNTZA HERIOTZAREN KAUSAK**

### **8. NOIZ ESATEN DUGU HIZKUNTZA BAT ARRISKUAN DAGOELA? (arrisku maila ezberdinak)**

### **9. HIZKUNTZAREN EGOERA**

### **10. BA OTE DAGO HIZKUNTZA BIZIBERRITZERIK? Hainbat hizkuntzari buruzko datuak (hebreera).**

## **ONDORIOAK**

# ZERGATIK HILTZEN DIRA HIZKUNTZAK?

## 1- SARRERA

Galdera hau ikusita burura etortzen zaizkit era horretako hamaika galdera: zergatik hiltzen dira hizkuntzak, landareak, animaliak etab? Hizkuntzen bizitza, izakien bizitzarekin konpara dezakegu, jaio, bizi eta desagertu egiten baitira, askotan testigantzarik utzi gabe ere. Historian zehar komunitate ezberdinak agertu eta desagertu egin dira, eta haiekin batera, beren hizkuntzak ere.

Hizkuntza bat hiltzea ez da arraroa. Gutxi dira 2000 urte bete dituzten hizkuntzak (euskara, egiptera, txinera, grekoa, latina, pertsiara, sanskrito, tamilera etab). Baina normala al da gaur egun hizkuntzak desagertzen ari diren erritmoa? Adituen arabera, lehen 31.000 eta 600.000 hizkuntza bitartean zeuden munduan, agian 140.000en bat<sup>1</sup>, eta Crystalen arabera egun 6000 hizkuntza inguru daude. Hizkuntza horietatik zortzik baino ez dute ehun milioi hiztunetik gora (gaztelera, ingelesa, hindiera, portugesa, errusiera, japoniera, mandarina eta bengalera).

Sei mila hizkuntza horien gainean kalkuluak egiten baditugu, argi ikusten da munduko biztanleen %96k 240 hizkuntza baino ez dituela erabiltzen; beraz, gehiengoak hizkuntza gutxi erabiltzen ditu. Munduko biztanleen %4k munduko hizkuntza guztien %96 hitz egiten dute. Desoreka honen argitan, aditu batzuek aurreikusten dute mende honetan hizkuntza guztien %95 desagertuko dela. Proporzio bera gizakiei aplikatuko bagenie, berehala hasiko ginateke konponbidearen bila, izugarrikeria irudituko litzaiguke eta.

Orain arte desagertu diren hizkuntzen errebasoa egiten badugu, argi dago hizkuntza batzuk besteak baino ezagunagoak direla. Badirudi kaleko edozein pertsonari edo unibertsitateko edozein ikasleri eskatuko bagenie hildako hizkuntzak aipatzeko erantzunak honakoak izango liriatekeela: latina, greko klasikoa, sanskrito, geez, etruskoa, gotikoa etab. Baina zerrenda horretan nekez bilduko genituzke adituen arabera galdu diren hamaika hizkuntzen izen guztiak, ezta gutxiago ere, zergatik ez, ordea?

Lan honetan zehar ikusiko dugun bezala, egun hizkuntzen arteko hierarkia egon badago, inongo ezaugarri linguistikoetan oinarritzen ez dena, baina hizkuntzaz kanpoko faktoreek (hiztunen prestigioa, testuinguru sozial eta politikoa etab) sortzen dutena. Badirudi hizkuntza batzuk besteak baino garrantzizkoagoak direla eta gainera, funtzio gehiagotarako balio dutela (mitoak baino ez, geroago azalduko dudana bezala). Baina argi dago hierarkia hori ez dela egungoa bakarrik, hildako hizkuntzen artean hierarkia maila altuenetan egon zirenak baino ez baititugu gogoratzen normalean.

Gaur munduan indarra duten hizkuntza zabalduenak hiltzailatzat jo genitzake, zabaltzeko nahi horretan beste hizkuntza gutxitu asko zapaltzen dituztelako, baina kontuan hartu beharke gure zabaltze hori ez dagokiela hizkuntzaren beraren ezaugarriari, baizik eta hizkuntza horren hiztunei eta horiek historiako garai honetan dituzten botere eta indarrari baizik.

Hiztunez ari naizela, aipagarria iruditzen zait nork bere hizkuntza goratzeko eta besteek hitz egiten dutena mesprezatzeko joera nahiko arrunta izan dela, eta dela egun ere,

---

<sup>1</sup> Pagel (1995)

hizkuntza dibertsitatea baloratzen ikasi ez dutenen artean. Hona Xamarrek (2001) ematen dituen adibideak:

- Eskimal herriak “inuit” (gizakia) hitzaz izendatzen du bere burua; “eskimal” (haragi gordin jalea) auzokoek erabiltzen dute.
- Ameriketako siux herriak “dakota” (lagunen bilkura) erabiltzen du bere burua izendatzeko; Ojiba herriak izendatzen ditu siux (ulertzen ez den hizkuntza hitz egiten duena)
- Greziarrek eta latindarrek beste guztiei barbaroak (barbari= herri totelak) deitzen zieten.
- Gaztelaraz algarabia (ulertzen ez dena) hitza al-arabiya (arabiera) hitzetik dator.
- Euskaraz erdara (erdi era) deitzen diogu euskara ez denari.

Hizkuntzak desagertzea gutxiespen, mesprezu horretan du oinarri nire ustez, hau da, gurea onena dela uste dugu. Horren ondorioz, guk dugun dohain (hizkuntza) hori besteei transmititu nahi diegu, eta ez gara konturatzen edo ez diogu inongo garrantzirik ematen askotan gurea zabaltzean beste hizkuntza bat/zuk desagertzeko bidean jartzen ditugula. Argi dago egun munduan dugun hizkuntza dibertsitatea ez dugula behar adina baloratzen, benetan baloratua izango balitz, hasieran aipatu dudun hizkuntzen arteko hierarkia egongo ez litzatekeelako

## **2- HILDAKO HIZKUNTZA EZAGUNAK**

Hizkuntza bat desagertzen denean, galdu den hizkuntza hori idatzi edo grabatu ez bada, ezin da ezer egin, hizkuntza desagertzen da arrastorik utzi gabe, inoiz existitu ez balitz bezala.

Dena den, egia da hildako hizkuntza batzuk arrastorik utzi gabe hil badira ere, beste askok arrastoak utzi dituztela, eta arrastoak ugari badira, pentsa dezakegu, nahi izanez gero, zaila bada ere, hizkuntza hori biziberritzeko aukera dugula (edo ez dugula guztiz galdu) hebreerarekin gertatu zen moduan.

Hagegek (2002) dioen moduan, hizkuntzak utzitako arrastoei begiratuta honako sailkapena egin ahal da:

- **Prestigidun hizkuntzak izan zirenak:**

**Latinak eta grekoak** hizkuntza erromantzeak dituzten hainbat herritako irakaskuntzan lekua dute, hau da, ikasleek ikasteko aukera dute. Hizkuntza klasikoak dira, eta horregatik, herri batzuetan kulturaren duten lekua aitortzen zaie.

**Sanskritoak** ere lekua du Indiako irakaskuntzan, eta latinak hizkuntza erromantzeekin duen lotura bera du sanskritoak hizkuntza familia indoarioaren hizkuntzekin. Bere hiztegiaren zati handi bat ere topa dezakegu Indiako indoarioak ez diren hizkuntzetan, horiek sanskritotik mailegu asko hartu dituztelako.

**Koptoa** XIX mendearen erdialdean oraindik nekazari batzuek erabiltzen zuten, baina, arabierak kendu zion lekua, eta gaur egun ez da komunikazio arruntean

erabiltzen. Dena den, lekua gorde du liturgian eta Egiptoko kristauen erlijio ekitaldietan.

**Geez:** Etiopiarren jatorrian dago. Aksum-eko (IV. mendean Abisinia erreinuaren hiriburua) hizkuntza izan zen. Egun erabilera erlijiosoetan mantentzen da. Egungo Etiopiako hizkuntza semitikoek mailegu asko hartzen dituzte hizkuntza honetatik

## **Testigantza asko utzi dituztenak:**

**Sumeriera** dugu zaharretako bat idatzi diren hizkuntzen artean. Ez du loturarik ezagutzen dugun inolako hizkuntza familiarekin. Kristo aurreko 3300 urtetik ditugu sumerieraz idatzitako testuak (idazkera kuneiformean idatzita). Asiriak Sumer menpe hartu zuenean akadiera hasi zen sumerieraren lekua betetzen. Hizkuntza horren gaineko testigantzak ere badaude.

**Tokariera** Txinako Turkestango hizkuntza indoeuroparra da. Testigantzak budismoarekin lotutako bi tratatu dira. 1000 urterako desagertu zen.

**Hititera** Kristo aurreko XIX. eta XIII. mendeen bitartean, Asia txikiko inperio boteretsu baten hizkuntza izan zen. Horren testigantzak ere asko dira. Hizkuntza horrek lekua utzi zien bere ondorengotzat har ditzakegun luvitera eta likiera hizkuntzei. Hizkuntza horien gainean ere nahiko informazioa daukagu, esaterako, 1974an aurkitu zen lizio-greko-aramieraz idatzitako testu bat.

**Gotikoa** godoen hizkuntza izan zen. Ulfila apezpikuak (gaur Errumania den Mesia diozesikoa) Biblia itzuli zuen gotikoz eta itzulpen horren zati asko daude egun oraindik

- **Testigantza gutxi utzi dutenak** (hizkuntza zeltak, akitaniera, hizkuntza eslaviarrak, Balkanetakoak etab)

**Hizkuntza zeltak** Europan eta Asia txikian oso zabalduta egon zirela badakigu, gehien bat onomastikari esker. Zeltak, ordea, gainbehera hasi ziren Kristo aurreko III. mendearen hasieran, eta horiekin batera hizkuntza zeltak ere bai. Hizkuntza horietako batzuk orain dela 2000 urte inguru hil ziren eta horien inguruko testigantza bakarrak inskripzio batzuk eta hilarrietan topatutako izenak baino ez dira. Bizirik daudenak ere (eskoziera eta galesera esaterako) ez daude beren onenean.

**Akitanieraren** testigantza bakarrak Pirinioetan topatu ziren. Testigantzak Kristo ondorengo hasierako mendeetako hilarrietan pertsona eta jainko izen batzuk baino ez dira. Batzuek uste dute hizkuntza hori aitzin-euskara dela<sup>2</sup>, pertsona eta jainko izen horiei zentzua eman ahal zaielako gaur egungo euskararen bidez.

**Balkanetako hizkuntzak.** Pelasgo hizkuntza indoeuroparra omen zen. Honen testigantza urriak *Iliadan* daude, patronimikoak eta toponimoak baino ez.

---

<sup>2</sup> Trask (1997)

Mazedonierak ere testigantza gutxi utzi dizkigu, aspaldi desagertu zen eta ez dago mazedonieraz<sup>3</sup> idatzitako testurik, Hesikiok eginiko glosak eta Heredoto historialariak egindako aipamenak baino ez ditugu.

- **Testigantzarik utzi ez dutenak**

Ubuh<sup>4</sup> hizkuntza (mendebaldeko Kaukasoko hizkuntza) 1992ko urriaren 8an hil zen, orduantxe hil baitzen hizkuntza horren azken hiztuna, Tevfik EsenÇ.

Kasabe<sup>5</sup> hizkuntza Kamerungo Adamada probintziako Mambilan erabiltzen zen. Connellek aurkitu zuen 1994-1995 urteen bitartean, landa-lan bat egiten zebilela. Hizkuntza honek hiztun bakarra zuen orduan, Bogon izenekoa. 1996ko azaroan Manbilara itzuli zenean, ezin izan zuen kasaberi buruzko datu gehiagorik jaso, Bogon 1995eko azaroan hil zelako, eta horrekin batera kasabe hizkuntza ere.

Eta askoz hizkuntza gehiago.

Lau egoera horien artean kezkarrienak azken biak dira; izan ere, zaila bada ere, aurrerago azalduko dudan moduan testigantza nahikorik badago, hizkuntza bat biziberritzea badago, baina testigantzarik gabe, hizkuntza hori desagertzen da inoiz bizi ez balitz bezala, bizitza ikusteko modu hori zertan zen jakin gabe geldituko gara ezinbestean.

### ***3- EZ GARA HIZKUNTZA DIBERTSITATEAREN GALERAREKIN KEZKATZEN***

Argi dago, beraz, hizkuntzak galtzearen fenomenoak ez dela berria, baina, galera horrek mende honetan hartu duen erritmoaren argitan, badirudi hizkuntza dibertsitatea galtzeak ez digula gehiegi arduratu, eta nik uste dut askotan interes falta horren atzean hainbat aurreiritzi edo hizkuntzen inguruko mito daudela, gehienak Moreno Cabrerak (2000) bilduak. Horietariko batzuk honakoak:

- **Babeleko dorrearen mitoa**

Horren arabera, munduaren hasieran hizkuntza bakarra zegoen, eta gizakiek zerura helduko zen dorrea eraiki nahi izan zutenean, jainkoak horien harrotasuna zigortzeko, hizkuntza ezberdinak sortu omen zituen gizakiek elkarren artean ez ulertzeko. Leienda honen arabera, badirudi hizkuntza aniztasuna txarra dela, zigorra, hizkuntza ezberdinak hitz eginez ez dagoela elkar ulertzerik, ez elkarrekin lan egiterik, eta ondorioz, beste hizkuntza bat hitz egiten duena ez dela laguna, etsaia baizik.

Mito honexek bultzatu ditu asko eta asko hasierako hizkuntza bakar hori bilatzera. Baina bilaketa horiek ez dute ondorio bera eman. Esaterako Goropius Becanus mediku eta hizkuntzalari flamenkoak 1569an zioen Ambereseko biztanleak Jafeten seme-alaben

---

<sup>3</sup> Jugoslavia desegin ondoren, 1992an sortu zen errepublika eslaviar txikiaren hizkuntzak ere badu mazedoniera izena, baina oraingo honetan ez gara horretaz ari.

<sup>4</sup> Crystal (2001)

<sup>5</sup> Connell (1997)



ondorengoak zirela<sup>6</sup>, eta horiek Babeleko dorrean ez zeudenez, hizkuntza aniztasun horretatik kanpo gelditu eta hasierako hizkuntza bakar hori gorde zutela. Hori izan zen Goropiusen argudio nagusia flamenkoa hizkuntza guztietan onena zela esateko.

Beste batzuen ustetan ingelesa zen hizkuntzarik onena. Rowland Jonesek “the circles of Gomer” liburuan ingelesa genealogikoki lotzen zuen grekoarekin, hizkuntza zeltekin, Galia, Britainia eta Italiako hizkuntzekin<sup>7</sup>. Horren bidez defenditzen zuen ingelesa hasierako hizkuntza izan zela, Adanek hitz egiten zuena, eta jaungoikoak berak ere bai.

Euskara lehenengo hizkuntza izan zela frogatu uste zuena ere izan dugu<sup>8</sup>. Esaterako, Lucas de Tuy Apezpikua, Ximénez de Rada artzapezpikua, García de Eugui (Baionako apezpikua), Garibai historialariak eta beste askok XIV - XVII. mendeen bitartean defenditu eta frogatu nahi izan zuten euskara Tubalen (Jafeten semea) hizkuntza izan zela. Horrek ekarri omen zuen Euskal Herrira paradisuaren hizkuntza, euskara.

Arabiera, errusiera eta beste hainbat hizkuntzarekin ere aurki ditzakegu horrelako saiakerak.

Beraz, nork du arrazoia? Zein izan zen lehena? Babeleko dorrearena mito bat baino ez da, gizakiak hizkuntza aniztasuna azaltzeko asmatutakoa, baina egungo datuekin ez dago inola ere justifikatzerik hizkuntza bakar bat egon zela hasieran. Nire ustez, aipagarria da mito honekin hizkuntzen arteko hierarkia ezarri eta justifikatu nahi izan dela, eta azken batean horixe dela atal honetan aipatuko ditugun mito guztiek ezkututzen dutena, hizkuntzen arteko hierarkia, hain zuzen. Hierarkia hori baliatu dute/dugu hizkuntza batzuk beste batzuen gainean jartzeko, eta beherago daudenekiko ez-axolagabekeria nolabait justifikatzeko.

Askori iruditzen zaie hizkuntza bakarrak munduari bakea ekarriko liokeela, baina egia ote da hori? Hizkuntza bakarreko herri askok izan dituzte gerra zibilak. Beraz, ez du ematen bakearen izenean hizkuntza dibertsitatea galtzea onartu beharko genukeenik. Ziur asko bakea hurbilago izango genuke jendearen komunitate-eskubideetan eta identitateetan arreta handiagoa jarriko bagenu.

## • **Munduko hizkuntzen sailkapen tipologikoa**

Hizkuntzalaritzaren barruan ere saiakerak egon dira hizkuntzen arteko hierarkiari oinarri zientifikoa emateko. Saiatu bai, baina alferrik, hau da, hizkuntzaren beraren barruko ezaugarriei begiratuta ( hizkuntzaren tipologiari, esaterako) ez dago hizkuntza bat bestea baino hobea dela argudiatzerik.

Munduko hizkuntzen lehenengo sailkapena Lorenzo Hervás y Panduro jesuita espainiarrak egin zuen (1979), baina Europako hizkuntzen tipologiaren antzekoak ez diren hizkuntzei buruzko ikerketa gramatikal serioak XIX. mendera arte ez ziren izan.

XIX. mendean sortu zen hizkuntzen arteko honako sailkapen tipologikoa:

---

<sup>6</sup> Moreno Cabrera (2000)

<sup>7</sup> Moreno Cabrera (2000)

<sup>8</sup> Moreno Cabrera (2000)

- **hizkuntza isolatzaileak:** Horrelako hizkuntzen esaldietan hitz asko biltzen dira, maiz, zentzua duten zatitan banatu ezin diren hitzak. Suposatzen zen hizkuntza horiek hitz solteez baino ez zeudela osatuta
- **eranskarriak** (turkiera, kazakhera, uzbekera, hungariera): Hizkuntza horietan askotan, hitzek esaldietan betetzen duten funtzioa bukaerek adierazten dute, baina latinez eta grekoaz ez bezala, bukaera horiek bata bestearen ondoren pilatzen dira, adibidez: etxe-ra-tu;
- **flexiboak:** Latina eta grekoa bezalako hizkuntzak. Horietan hitzak aldatzen dira esaldian betetzen duten funtzioaren arabera, baina kasu honetan atzizkiak ez dira pilatzen; aitzitik, elkartu eta bukaera bakar bat sortzen dute. Bukaera bakar horrek zenbakia, generoa eta kasua adieraz ditzake batera.

Horrekin lotuta, hizkuntzalariak deskubritu zuten hiru tipo horiek lotuta zeudela, eta askotan egitura isolatzaileek eranskarriak sortzen zituztela, eta azken hauek flexiboak. Adib: latinez hac (haec-en ablatiboa) hora (en esta hora)> hacora (aglutinatzaile> agora (hora hitzaren forma adverbiala).

Ondorio horretan oinarrituta, eta kontuan hartuta garai horretan hizkuntzen hierarkian goi mailan zeuden hizkuntzak grekoa eta latina zirela, eta bi hizkuntza horiek flexiboak zirela, zera ondorioztatu zuten: hizkuntza osatuenak eta aurreratuenak flexiboak zirela, eta isolatzaileak beraz, atzeratuenak, eskalan behe mailan kokatu behar genituenak.

Mito hori ere ez dago egun salbatzerik; izan ere, hizkuntzen bidea ez doa beti isolatzaile izatetik eranskarri eta gero flexibo izatera, egun hierarkian maila altuan dauzkagun hizkuntza erromantzeek kontrako bidea egin baitute. Ideia oker honekin eurozentrismoa defenditzen zen. Kontua ez zen erakustea Europan zein zen hizkuntzarik onena, baizik eta hizkuntza indoeuroparrak (orduko latina, grekoa, sanskrito), flexiboak gehienak, besteen gainetik zeudela.

Gaur egun ere badakigu hizkuntzak ez direla tipo bakar batekoak, eta hizkuntza bakar batean hiru tipologia horiek aurkitu ahal ditugula.

## • **Hizkuntza batzuk primitiboak dira**

Nettle eta Romainek (2000) dioten bezala, askotan hiztunen gaineko estereotipoak hizkuntzei berei itsasten zaizkie “*Europeans dismissed as primitive and barbaric the languages spoken by those whom they regarded as uncivilized*” eta gai honi dagokionez estereotiporik arruntena da hiztunak “primitiboak” direnez (“zibilizatuon” ustez), hizkuntza ere primitiboa dela, eta hori pentsatzea nahikoa dugu hizkuntza horren etorkizunaz ez kezkatzeko. Hizkuntzaren primitibotasun hori defenditzeko argudioak honakoak dira :

- *Hiztegi murrizta dute:*

1998an J Cerny<sup>9</sup> zioen Kalahari basamortuko hizkuntza bateko hiztunek hiztegi murrizta zutela, 80 hitzeko hiztegia baino ez, eta komunikatzeko keinu eta jarrera

---

<sup>9</sup> Cerny (1998)

asko erabiltzen zituztela. Ondorioz, ilun zegoenean elkarren artean komunikatzeko arazoak omen zeuzkaten.

Egia al da hori? Nik ezetz esango nuke. Batetik, askotan hizkuntza bat beste baten gainetik jartzeko, lexiko zabala duela argudiatzen da, baina hizkuntza guztietan lexikoaz gain, morfologia eta sintaxia ere badaude eta lexiko kopurua ez da oinarritzotzat hartu behar. Hizkuntzak duen hitz berriak sortzeko gaitasuna da inportanteena; beraz, hizkuntza horrek 80 hitz dituela egia balitz ere, hori ez litzateke nahikoa izango primitibotzat jotzeko.

Gainera, B. Comrie, S. Matthewsek eta M. Polinskyk ikusi zuten askok primitibotzat jotzen zituzten hizkuntzek hiztegi zabala zutela: “*Mucha gente en Australia cree que las lenguas aborígenes son simples y tienen pocas palabras, pero sus vocabularios son de hecho grandes y bien desarrollados. Por ejemplo, un vocabulario de arrente recientemente publicado, supera las 750 páginas*” (B. Comrie, S. Matthews eta M. Polinsky [eds] 1996:120)

Bestetik, keinuei dagokienez, interesgarria iruditzen zait J.C Morenok (2000) proposatzen duen proba egitea, hau da, gure hizkuntza hitz egiten duen hiztun bat bideoan grabatu eta gero, ahotsik gabe ikustea. Erraz konturatuko ginbateke guk ere keinu asko erabiltzen ditugula, eta geure hizkuntza ez dugula horregatik primitibotzat jotzen. Beraz, hori ez da nahikoa arrazoi beste hizkuntza bat primitibotzat hartzeko.

#### - *Gramatika pobrea dute*

Askok defenditu izan dute hizkuntza indigenak ez direla ingelesa, frantsesa edo gure mundu moderno honetan zabalduen dauden hizkuntzak bezain konplexuak, garatu gabeko hizkuntzak direla. Horrelako pentsaerak ere ez dio batere laguntzen hizkuntza gutxituen babesari. Dena den, frogatuta dago iritzi hori aurreiritzia baino ez dela.

Esaterako ubikhera hizkuntzak 88 kontsonante ditu, ingelesak, ordea, 24<sup>10</sup>. Afrika hegoaldeko khoisan hizkuntzen familia bakarra da klik kontsonanteak dituenak, eta ahots mota hori aztertuz gero, 48 klik ahots ditu.

W Foley-k<sup>11</sup> Papua Ginea Berriko hizkuntzei buruz dio hizkuntza papuarren denbora sistemak Europako hizkuntzenak baino “garatuago” daudela, hizkuntza gehienetan lehenaldi bat baino gehiago baitago, askotan gertaera eta orainaldiaren arteko tartearen luzeraren arabera.

Zimbawen hitz egiten den sona hizkuntzak<sup>12</sup> ere aditz ezberdin asko ditu ibiltzeko modua adierazteko.

Ez al da egia gaur onenekotzat ditugun hizkuntzak ere, sakonean aztertuz gero, ez direla arlo batzuetan sinpletzat ditugun hizkuntza gutxitu asko baino sinpleagoak?

---

<sup>10</sup> Yallop (1982)

<sup>11</sup> Foley (1986)

<sup>12</sup> Moreno Cabrera (2000)

Ingelesak adibidez ez du ondo adierazten zu eta zuek-en arteko desberdintasuna; munduan zehar, ordea, izenordain dualak (gu biok, zuek biok eta haiek biok adierazten dituztenak) topa daitezke. Beste hizkuntza batzuek izenordain triadikoak dituzte (Australiako nungubuyu adibidez) gu biok, gu hirurok eta gu batzuk bereizteko. Beraz, ez du ematen konplexutasun /sinpletasunaren izenean inolako hizkuntza arbuia daitekeenik.

- *Ez dute ideia abstraktuak erabiltzeko balio*

Euskaldunok oso ezaguna dugu aurreiritzi hau, askotan euskarari egotzi diotelako ideia abstraktuak adierazi ezina. Nik esango nuke baieztapen hau egin zuen horrek hitzez hitzeko itzulpenean nabaritu uste izango zuela hutsune hori; baina, hitzez hitzeko baliokidetzarik ez egoteak ez du esan nahi hasierako baieztapena egia denik

- *Ez dute mundu aurreraturako balio*

Hizkuntza “primitiboek” (euskara barne) mundu aurreratu honetarako balio ez dutelako ideiak ere ez du oinarririk. Hori esateko, tresna modernoak, asmakizun berriak izendatzeko lexiko faltan oinarritu dira, baina, egia esan, gaztelera bera primitibotzat joko genuke, lexiko bila, grekora (teleskopio, telefono etab) jo zuelako hainbat asmakizun izendatzeko?

Argi dago hizkuntzak beren ingurunera egokitzen direla eta hizkuntza guztiek adierazten dutela egoera berrietara egokitzeko gaitasuna. Kontua da hizkuntzek (uzten bazaie) hiztunekin batera egiten dutela aurrera eta hiztunen beharretara egokitzen direla. Hizkuntza batean hitz bat existitzen ez bada, hiztunek behar ez dutelako da, beharra sortzen zaienean, behar berri hori asetzeko moduak topatuko dituzte hizkuntzaren bidez.

• **Hizkuntza batzuk besteak baino errazagoak dira ikasten**

Hau egia balitz, nola uler liteke ume guztiek ama hizkuntza, edozein dela ere, ia denbora tarte berean ikastea? Nik esango nuke umeen gaitasun horrek baliogabetzen duela erraza/zaila izatearen araberrako sailkapena.

Hizkuntzaren ezaugarri linguistikoek ez dute inolako eraginik hizkuntza ikasteko erraztasun/zailtasunaren gainean, koska haxe da: hasierako hizkuntza zein den, hau da, hasierako hizkuntzaren ezaugarriak, egiturak, ikasiko denaren antzekoak diren ala ez. Beraz, argudio hau ere ez da nahikoa inongo hizkuntzarik baztertzeko edo galtzeko bidean jartzeko.

#### ***4- DIBERTSITATEA ZAINDU BEHAR DUGU***

Orain arte aipatu ditut hizkuntza dibertsitatearen galeraz ez kezkatzeko maizen erabili eta erabiltzen diren argudioak, baina uste dut argi geratu dela argudio horiek ez dutela inolako oinarri zientifikorik, eta aurreiritzi hutsak baino ez direla hizkuntza batzuk beste

batzuen gainera jartzeko. Beraz, ekin diezaiozun azaltzeari zergatik zaindu behar dugun hizkuntza aniztasuna.

- **Egungo hizkuntza handiak ez dira beti handiak izan**

Nik uste dut hizkuntza galeraren arazoa ulertzea askoz errazago egiten zaigula hizkuntza gutxitua erabiltzen edo ezagutzen dugunoi, hizkuntza desagertzeko mehatxua hurbilago bizi dugulako.

Badirudi hizkuntza indartsuen hiztunek ez dutela desagertzen hori hurbil ikusten eta, berea salbu ikusita, berdin diela beste hizkuntzei zer gertatzen zaien.

Hizkuntza “handia” izan, eta “gutxituekiko” axolagabekeriak jokatzen duten horiei guztiei azaldu nahiko nieke hasiera batean ingelesa, frantsesa, alemana, gaztelera eta abar tribu edo komunitate txikietan hitz egiten zirela, eta orduan hizkuntza horiek ez zutelara eraginik orduko gune kultural eta politiko garrantzitsuetan, hau da, egun Amazonasen bizi diren tribuen hizkuntzen antzekoak ziren orduan.

Moreno Cabrerak aipatzen duen moduan, H.Walterrek hauxe zioen: *“hasta mediados del s.X el castellano sólo era uno más de los oscuros dialectos hablados en el norte de la península, en una especie de provincia fronteriza fortificada, situada en la cordillera del cantábrico, al este de León”*<sup>13</sup>.

Errekonkistak zabaldu zuen dialekto hori; arrazoa, beraz, ez zen linguistikoa izan, militarra baizik.

Latina bera ere hizkuntza “gutxitua” izan zen H. Walterren arabera: *“Nada permitía prever un destino tan excepcional para la lengua de este pequeño pueblo de agricultores establecidos en unos poblados que, a mediados del s.VIII a.c, sólo constituían un modesto lugar de paso en el corazón del Lacio, en el pantanoso valle del Tíber”*<sup>14</sup>.

Egoera politiko, militar, kultural eta historikoen bihurtu dituzte hizkuntza hauek hizkuntza zabalak. Beraz, ezin dugu hizkuntza gutxietsi, komunitateak gerra irabazi ez duelako, edota inguruko hizkuntzak hil ez dituelako berea inposatzeko.

- **Hizkuntza identitatearentzat oso inportantea da**

Hizkuntza garrantzizkoa da hiztunari bere komunitatearen pentsaera, ingurunea, bizimodua, historia eta, oro har, kulturaren berri ematen diolako.

Hizkuntzak aztertzen baditugu, argi ikusiko dugu hizkuntzak, bizi den lekuaren arabera, ezberdintasun semantiko eta sintaktikoak dituela, horrekin ere lotura du, beraz.

J Zalduak dioten moduan: *“ Herri batentzat hizkuntza ez da bakarrik elkar ulertzeko tresna bat, taldearen ohituren artxibo eta bilduma baizik. Mintzaira da taldeak egiten duen inguruko munduaren irudi bereziaren adierazpena ”*<sup>15</sup>.

---

<sup>13</sup> H. Walter (1997:193)

<sup>14</sup> H. Walter (1997:11)

<sup>15</sup> J. Zaldua (1995:44)

Nettle eta Romainek (2000) ere hauxe diote: “*The vocabulary of a language is an inventory of the items a culture talks about and has categorized in order to make sense of the world and to survive in a local ecosystem*”.

- **Hizkuntza komunitatearen historiaren isla da**

Crystalek<sup>16</sup> dio hizkuntza batean erabiltzen diren hitz eta espresio askok lehenagoko hiztunen pentsatzeko modua islatzen dutela, baita historian zehar hizkuntzak eta kulturak beste kultura batzuekin izan dituzten harremanak ere. George Steinerrek<sup>17</sup> dioen moduan hizkuntza batek ez du inoiz ahazten.

Hizkuntza galtzeak komunitaterako historiaren parte bat galtzea litzateke. Komunitate batek hizkuntza galtzen badu, hurrengo belaunaldiek ez dituzte ulertuko hizkuntza horretan idatzitako/kontatutako testuak, eta beren komunitatearen historia eskuraezin gertatuko zaie. Crystalek dio kontakizun horiek itzultzea badagoela, baina ziur dago itzulpenean asko galduko litzatekeela.

- **Hizkuntzak beren hiztunentzat ez ezik, gainerako hizkuntzen hiztunentzat ere garrantzizkoak dira.**

Nahiz eta nork bere hizkuntza osasuntsu ikusi, munduan dagoen hizkuntza aniztasuna mundu guztiaren kultura ondarearen zati gisa baloratu beharko genuke; izan ere, hizkuntzak komunikazio tresnak izateaz gain hiztunen munduaren ikuspegia, irudimena eta jakintza transmititzeko era adierazteko modua ere bada. Hizkuntza ezberdinak familia berekoak izan arren, modu ezberdinean islatzen dute errealitatea.

Vjaceslav Ivanov<sup>18</sup> idazle errusiarrak dioen moduan “hizkuntza bakoitzak unibertsoaren ikuspegi bat du, mundua ulertzeko sistema semiotiko bat, eta mundua deskribatzeko 4.000 modu badugu, hori aberastasun mota bat da. Hizkuntza bat desagertzeak hartz panda bat desagertzeak beste kezkatu beharko gintuzke”

Herri “aurreratuetan” “primitibotzat” ditugun herri eta tribu askok ingurumenaren gaineko ezagupen zabala dute (animaliak, landareak, ilargiaren faseak eta abar), eta ezagupen hori hizkuntzan ere islatzen da. Guk horien aldean atzeratuak gara arlo horretan; horrexegatik ere badira garrantzizkoak hizkuntza horiek. Argi dago hizkuntza bakar batek ere ez duela biltzen munduko ezagutza guztia; denak ditugu beharrezkoak, beraz.

Argi izan beharko genuke hizkuntza kulturaren zati oinarritzkoena dela, eta beste kulturak ezagutzea eta beste herriak bisitatzea hainbeste baloratzen dugun garai honetan kultura eta hizkuntzaren arteko lotura hori inoiz baino gehiago azpimarratu beharko genukeela, denen aurrean lotura hori argi uzteko. Ez dugu ahaztu behar oporretan goazenean ikusten ditugun monumentu horien egileek hizkuntza bat zutela edo egun ere badutela, ikusten ditugun monumentuak besteko arreta merezi duen hizkuntza, hango eta hangoen berri emango digulako, eta horrek munduari buruzko ezagutza handitzen lagundu ahal digulako.

---

<sup>16</sup> Cristal (2001)

<sup>17</sup> George Steiner (1967)

<sup>18</sup> I. Vjaceslov (1992)

## 5- ZENBAT HIZKUNTZA DAUDE MUNDUAN?

Munduko hizkuntza aniztasuna gorde nahi badugu, zenbat dira, beraz, zaindu beharrekoak? Hizkuntza kopurua zehaztean adituak ez datoz bat. Egun, munduko hizkuntzen kontura gehienetan entzuten den kopurua 6.000koa da, baina adituen arabera kopuruak 3.000 eta 10.000 artekoak izan daitezke.

Kontuan hartu behar dugu, hortaz, lan honetan zehar agertzen diren hizkuntzen kopuruak ezin direla absolututzat hartu, kopuru horiek zehaztea oztopatzen duten honako arrazoiengatik:

Alde batetik, hizkuntza kopuruei buruzko ikerketa serioak XX. mendearen bigarren erdialdera arte gutxi izan ziren. Ethnologue<sup>19</sup>, egun dugun katalogorik osatuena 1974an hasi zen mundu mailako ikerketa egiten. Ethnologue katalogoaren 3. edizioan aipatzen diren 6.703 hizkuntzen artean 3.704 hizkuntza agertzen dira aztertzeko, tribu eta hizkuntza berriak agertzen ari direlako.

Bestetik, batzuetan azaletik begiratuta, denak hizkuntza bera direla ematen du, eta sakonean aztertuta, konturatzen gara hizkuntza ezberdinak direla. Kontrakoa ere gertatzen da sarritan, hasieran hizkuntza desberdintzat hartutakoak ez dira hain ezberdinak eta hizkuntza bakarra dela da ondorioa. Horren ondorioz, batzuetan hizkuntza gehiago dira eta besteetan gutxiago

Hizkuntzen izenek ere nahasketa sortzen dute. Ethnologue katalogoan berom izeneko hizkuntzak 12 izen ezberdin ditu: birom, berum, gbang, kibo, kibbo, kibbun, kibyen, aboro, boro-aboro, afango, chenberom eta shoso. Horrelakoetan azertu behar da izen guztiek hizkuntza bera aipatzen duten, ala hitzuna, herria edo hizkuntzari lotutako beste errealtate bat. Kanpotarrek zelan deitzen dioten ere badago.

Horren ondorioz, Ethnologuen 6.703 hizkuntzatarako 39.304 izen biltzen dira. Izen horietako askok hizkuntzaren dialektoak izendatzen dituzte. Hor ere badago zer esana; izan ere, hizkuntza eta dialektoen artean bereiztea, arrazoi linguistikoak oinarri, oso zaila da. Askotan bereizketa horretan arrazoi soziopolitikoak era badaude, esaterako suediera, daniera eta norvegieraren hitzunek erraz asko uler dezakete elkar (elkar ulertzea ezin da bakarrik hartu hizkuntza bakartzat hartzeko) eta hala ere, hiru hizkuntzatzat hartzen dira. Serbiera-kroaziera oraintsu arte lehengo Jugoslavian hitz egiten ziren hizkuntza aldaerak biltzen zituen eta 1990eko gerra zibilen ostean hiru hizkuntza dira, serbiera, kroaziera eta bosniera. Hizkuntza horien ezaugarri linguistikoak ez dira aldatu; egoera soziopolitikoa, ordea, bai.

Horretaz gain, beste arrazoi bat ere badago. Munduko eskualde batzuetan oso ikerketa urri egin dira bertako hizkuntzei buruz (esaterako, Brasilen), eta batzuetan ez dakigu herri ezberdinek egiten dituzten hizkuntzak aldaerak ala hizkuntzak diren.

---

<sup>19</sup> Grimes (2001)

## **6- MUNDUKO HIZKUNTZAK**

Atal honetako datu gehienek Hagege (2002) liburutik ateratakoak dira. Horren arabera, munduko hizkuntza guztiei begiratuta, argi ikusten da hizkuntza aniztasun handiena 22 herritan dagoela.

Horien artean 9k 200 hizkuntzatik gora dituzte:

- Papua Ginea Berriak 50
- Indonesiak 670
- Nigeriak 410
- Indiak 380
- Kamerun 270
- Mexiko 240
- Kongoko Errepublikak 210
- Australiak 200
- Brasilek 200

Gainerako 13ek 100 eta 160 hizkuntza inguru daukate:

- Filipinak
- Errusia
- Estatu Batuak
- Malasia
- Txina
- Sudan
- Tanzania
- Etiopia
- Txad
- Vanuatu
- Afrika erdialdeko Errepublika
- Birmania
- Nepal

Hizkuntza horietako asko eta asko arriskuan daude, eta eman ditudan kopuruak Kraussek 1992an emandakoak dira; beraz, baliteke, gaur egun horiek baino gutxiago izatea, 1992an jada arriskuan baitzeuden asko.

Egia esan, hizkuntzen gaia sakonean ezagutu ezean, harrigarri gertatu ahal zaigu hizkuntza aniztasun handiena duten herrien artean Errusia, Txina, Brasil eta Estatu Batuak, Australia eta Mexiko egotea; izan ere, badirudi sei herri horietan hizkuntza bakarra dagoela. Kontua da herri horietan guztietan botere politikoak argi eta garbi egiten duela hizkuntza ofizial baten alde, eta ondorioz, herri horietako gainerako hizkuntzak baztertuta gelditzen dira, inolako laguntzarik gabe. Testuinguru horrek, ikusi dugun moduan, ez dio batere laguntzen hizkuntzaren prestigioari, eta ondorioz, hizkuntzaren beraren biziraupenari ere ez.

Gainerako 16 herrietan hizkuntza ofizial bat edo bat baino gehiago daukate, baina hizkuntza horietako bat ere ez da kopuru aldetik besteak baino handiagoa den etnia baten berezko hizkuntza. Kasu horietan guztietan hizkuntza ofiziala edo ofizialak



kolonizatzaileen hizkuntza edota politikoki zein ekonomikoki boterea duen komunitatearen hizkuntza da, eta ondorioz, aukeratutako hizkuntza hori ere arriskutsua da bertako gainerako hizkuntzentzat.

Ethnologue katalogoaren arabera, hona munduko hizkuntzen kopuruak kontinenteka sailkatuta (2007):

	Bizirik dauden hizkuntzen kopurua	Hizkuntzen portzentajea	Hiztun kopurua	Hizkuntzako hiztun kopurua batez beste
Afrika	2.092	% 30,3	675.887.158	323.082
Amerika	1.002	% 14,5	47.559.381	47.464
Asia	2.269	% 32,8	3.489.897.147	1.538.077
Europa	239	% 3,5	1.504.393.183	6.294.532
Pazifikoa	1.310	% 19	6.124.341	4.675
Denetara	6.912	% 100	5.723.861.210	828.105

Ethnologue katalogoan azaltzen den moduan, lehen zutabeak adierazten du zonalde horretan bizirik dauden eta bertan jatorria duten hizkuntzen kopurua. Katalogo horren egileen ustetan hizkuntza bat bizirik dago hori lehen hizkuntza gisa duen hiztun bat badago, gutxienez.

Bigarren zutabearen biltzen da zonalde horretako hizkuntzen portzentajea, munduan dauden hizkuntza guztien gainean.

Hirugarren zutabearen jasotzen da zonalde horretako hizkuntzek denetara duten hiztunen kopurua, berdina da hiztunak bertan edo beste nonbait bizi diren.

Laugarren zutabearen zonalde horretako hizkuntza bakoitzak duen batz besteko hiztun kopurua agertzen da.

Taula horri begiratuta, aipagarria iruditzen zait hiztun kopururik handiena eta hizkuntza kopururik txikiena kontinente berean biltzen direla, Europan. Nire ustez, horren arrazoia nazio-estatuaren eta hizkuntza bakarraren arteko loturaren ideia da, Europan erro sakonak dituen ideia. Ez dira gutxi pentsatzen dutenak nazio-estatuaren batasuna lortzeko hizkuntza aniztasuna oztopo dela.

Europan ostan, Amerika dugu hizkuntza portzentaje txikienarekin. Hain kontinente handia den arren, ez zaigu arraro gertatu behar, Ameriketara ere konkistatzaile askok hasieran eta gero agintariak ere “estatu bat hizkuntza bat” helburua izan zuten eta.

Esandakoaren adibide gisa, Nettlek eta Romainek (2000) aipatzen dituzten Theodore Roosevelt presidentearen hitzak (1918an): “We have room for but one language in this country and that is the English language...”

Hego Amerikaren kasuan gaztelania dugu guztien artean nagusi, konkistatzaile joandakoak izugarri saiatu baitziren gaztelania inposatzen, nazio-estatuaren zein kristautasunaren izenean, pentsatzen zutelako gaztelaniaz baino ezin zirela indigenak kristautu.

Ondoren, Munduko hizkuntzei buruzko txostenaren laburpenetik (2005) hartutako mapa dugu, munduko hizkuntza taldeak biltzen dituen.



## 2.1. Mapa. Munduko hizkuntz taldeak

1. *Afroasiarra (semita familia hartzen du bere baitan)*
2. *Niger-Kongoarra (bantu familia hartzen du bere baitan)*
3. *Khoisan hizkuntzak (boskimandara eta hottentotera hartzen ditu bere baitan)*
4. *Nilo-Sahararra*
5. *Altaitarra (turkiar familia hartzen du bere baitan)*
6. *Uraldara (finlandiera eta hungariera hartzen ditu bere baitan)*
7. *Chukchi-kamchatkar hizkuntzak (chukchiera eta itelmenera hartzen ditu bere baitan)*
8. *Amerikako hizkuntzak (hamabi filo edo hizkuntz familia gutxienez)*
9. *Eskimo-aleutarra (inuitera eta aleutera hartzen ditu bere baitan)*
10. *Na-dene hizkuntzak (athaspaskar familia hartzen du bere baitan, apache hizkuntzak bame)*
11. *Australiara (pama-nyungatar familia, Australia hegoaldekoa, hartzen du bere baitan)*
12. *Mon-khmentarra (vietnamera eta khmerera hartzen ditu bere baitan)*
13. *Mundatarra (India)*
14. *Thaitarra (thaiara hartzen du bere baitan)*
15. *Austronesiara (malayo-polinesiar familia hartzen du bere baitan)*
16. *Miao-yao hizkuntzak*
17. *Sino-tibetara (familia sinoa hartzen du bere baitan)*
18. *Andamanarra (Andaman uharteak)*
19. *Papua (Ginea Berriaren zatirik handiena hartzen duen trans-ginear filoa hartzen du bere baitan)*
20. *Indoeuroparra (familia hauek hartzen ditu bere baitan: erromantzea, germaniara, eslaviara, baltara eta zeltara)*
21. *Hegoaldeko kaukasoarra (georgiera hartzen du bere baitan)*
22. *Ipar kaukasoarra (bretxeniera hartzen du bere baitan)*
23. *Dravidar hizkuntzak (tamilara, teluguera, kannadara) hartzen ditu bere baitan)*

### Hizkuntza isolatuak:

24. *Japoniera*
25. *Koreera*
26. *Euskara*

Hizkuntzen banaketa kontinenteka kopurutan zein iruditan ikusi ostean, garrantzizkoa iruditzen zait hizkuntzen egoera kontinenteka hitzez azaltzea.

## AFRIKA

Joseph Greenberg hizkuntzalari amerikarraren arabera<sup>20</sup>, Afrikan 2000 hizkuntza inguru daude, eta ikusi dugun moduan, horretan ere Ethnologue bat dator, bertan 2.092 hizkuntza jasotzen direlako. 200 hizkuntza baino gehiagok 500 hiztunetik behera daukate; arriskuan omen daude, beraz.

Junyenten arabera (1999) Afrikakoak lau hizkuntza familiatan bana daitezke:

- **Niger-kongoliarra:** Afrikako zabalena da hiztun kopuruari dagokionez, honetan 1.400 hizkuntzatik gora eta 360 milioi hiztun inguru daude eta. Familia honetako hizkuntzak (wolofera, mandiga, jorubera, swahilia, quikuyuera, lingala, luba etab) Senegaletik Kenyaraino eta Erdialdeko Afrikako errepublikatik Hego Afrikaraino erabiltzen dira. Hizkuntza bantuak ere talde honetakoak dira
- **Afroasiarra:** Hizkuntza familia hau Afrikako iparraldean eta Asiako hego mendebaldean erabiltzen da (arabiera, hebreera, somaliera, hausa, tigrina etab). Denetara 370 hizkuntza inguru dira.
- **Nilo sahariarra:** Familia honetako hizkuntzak familia afroasiarrak eta niger-kongoliarrak betetzen dituzten hainbat lekutan ere erabiltzen dira, baina gehien bat Nilo ibaiaren ertzean, Uganda, Sudan eta Hegoafrikako errepublikan, eta Txad errepublikan. 200 hizkuntza inguru dira (masaia, nubioa, songaia etab).
- **Khoisana:** Familia honetakoak Afrikako hego mendebaldean erabiltzen dira. 35 hizkuntza inguru dira, eta denak desagertzeko arriskuan (hadza, sandavesa etab) omen daude.

Hurrengo mapa UNESCOren “El mensajero del patrimonio inmaterial” (2006ko iraila) aldizkaritik ateratakoa da, eta bertan Afrikako hainbat hizkuntza agertzen dira.

---

<sup>20</sup> El mensajero del patrimonio inmaterial (2006ko iraila), UNESCOren aldizkaria.



Afrikako herri gehienek hizkuntza asko dituzte; batez ere Nigeriak (500 hizkuntza) eta Kamerunek (280). Hiztun gehien dituzten hizkuntzak hausa, jorubera, igboera eta amharika dira; horiek guztiek hogeina milioi biztanle ingururen lehen hizkuntzak dira eta.

Horrez gain, Afrikan lau edo bost hizkuntzak baino ez dute eskualde mailako prestigioa (sukuma, ñamwezia, makondea, shambala eta batez ere, masaia) eta etnia txikietako hizkuntzetarako ez dago laguntza ofizialik hezkuntzarako, ezta alfabetizaziorako ere. Hegoafrikan, ostera, bada zerbait hezkuntza kontuetan.

Arraroa gerta badaiteke ere, Afrikako bertako hizkuntzentzako arriskutsuagoak dira bertako beste hizkuntza batzuk, frantsesa edo ingelesa baino. Afrikako lehenengo kolonia britainiar eta frantziarrek independentzia lortu zutenean, ingelesa edo frantsesa hartu zuten hizkuntza ofizial, nazio batua lortzeko eta independentziarako joera ez bultzatzeko asmoz. Kontua da hizkuntza horiek herri horietako eliteek baino ez zekitela, eta herri-zehea, nolabait esatearren, beren hizkuntzak erabiltzen jarraitu zuen.

Baina botere politikoak Afrikako hizkuntza bat aukeratzen badu hizkuntza nazional moduan eta horri ematen badio laguntza bai eskolan, bai komunikabideetan eta bestelako esparruetan ere bai, oso kaltegarria izan daiteke bertako gainerako hizkuntzentzat, gerta baitaiteke hiztunek Afrikako hizkuntza hori hartzea, eta nork berea galtzen uztea. Horixe gertatzen ari da:

- Egun Tanzanian eta Kenyan swahilia ateratzen da garaile. Swahilia, niger-kongo familiakoa, 4 milioi hiztun inguruk erabiltzen dute lehenengo hizkuntza moduan; eta 40 milioi inguruk bigarren hizkuntza legez, ekialdeko Afrikan gehien bat. Egia da elebidun guztiek ez dakitela ondo-ondo swahiliaz, baina jende guztiak ulertzen du,

eta egun goi mailako gizarte klaseetan betetzen du kolonialismo garaian ingelesak betetzen zuen lekua. Horren ondorioz, gainerako hizkuntzen gainean izugarritzko presioa du.

- Afrikako erdialdeko herri gehienetan dago zabaldua peul hizkuntza ( Senegal, Txad eta Afrika Erdialdeko errepublika). Presio handiena Kamerunen sortzen du.
- Hausa hizkuntzak presio handia egiten du Nigeriako iparraldean.
- Antzerako bidea dabil egiten lingala hizkuntza Kinshasa eta Kongoko Errepublikaren zati batean. Leku horietan frantsesari kentzen ari zaio lekua, eta hori ez da bertako gainerako hizkuntzentzat mesedegarria izango.

## AMERIKA

Junyenten arabera (1999) kontinente honetan hiru hizkuntza familia topa daitezke:

- **Amerindiarra:** Eskimo-aleutar eta na-dene familiako hizkuntzak izan ezik, Amerikako bertako hizkuntza guztiak biltzen ditu honek (guaraniera, ketxuera, kupeñoa, txeienera, dakota, yukatekera, aimara, maputxea, araua etab).
- **Eskimo-aleuta:** Amerikako iparraldean (Alaska, Kanada eta Groenlandian) hitz egiten diren hizkuntzen taldea da (iupikera, inupikera, aleuta etab). Hamar hizkuntza ere ez dira, eta denek oso hiztun gutxi dauzkate.
- **Na-dene** familia: Pazifikoko kostaldean eta Amerikako iparraldean hitz egiten dira. Familia honetako ezagunena eta hiztun gehien dituen navajoa da

Wikipediatik ateratako informazioaren arabera ([www.wikipedia.org](http://www.wikipedia.org)), Ameriketako hizkuntza indigena asko desagertu dira XVI. mendetik aurrera, baina galera erritmoa izugarri azkar joan da XX. mendean zehar. Ameriketan ez dago hizkuntza indigenarik galdu ez duen herririk.

**IPAR AMERIKAREN** barruan, estatu Batuetan eta Kanadan hizkuntza indigena eta kreolerak egoera kezkagarrian daude, hau da, navajoa, kre eta ojiba salbu, gaur egun arte bizirik jarraitu duten 200 hizkuntza amerindiar gehienak arriskuan daude.

Hagegek (2002) ematen dituen datuen arabera, XVI. mendearen hasieran Estatu Batuetan (Alaska barne) eta Kanadan 600-700 hizkuntza inguru zeuden; orain dela 55 urte, ordea, 213 baino ez, eta 213 horien artean 89 hizkuntzek baino ez zuten adin guztietako hiztunak. 1962tik 50 hizkuntza gutxienez desagertu dira, orduan horiek 1-10 hiztun edadetu inguru baino ez zutelako eta beste 35 hizkuntza desagertzeko arriskuan daude, 1962an 100 hiztun baino gutxiago zuten eta.

Hizkuntza indigena horien alboan, European bizitasun handia duten hizkuntzak bizi dira, baina asko ingelesaren presioagatik desagertu dira edo desagertzeko bidean daude Ipar Ameriketan.

Esaterako, Kanadako Ternua probintzian dagoen Port-au-Port penintsulan XIX erdialdetik XX.aren hasiera bitartean frantsesak 2.000 hiztun zituen; 1992an , aldiz,

1.000, batez ere Cabo Saint-Georges-en eta La Grand`Terre-n. Beste bi herritan, L`Anse-à-canards eta Stephenville-n, 50 urtetik gorako hiztunak zeuden, eta horiek ere ez zuten hizkuntza guztiz ondo erabiltzen. Badirudi Ternuan frantsesak etorkizun beltza duela.

Ontarioko Welland hirian ere arriskuan dago frantsesa. Bertara, lehenengo munduko gerraren ostean eta industrializazioak bultzatuta, Quebeceko 40 familia frantziar-kanadiar joan ziren. 1981ean hiriko biztanleen %15.5 ziren. Dena den, han ingelesak izugarriko presioa izan eta izaten jarraitzen du frantsesaren gainean; izan ere, laneko hizkuntza ingelesa da, ingelesaren hiztunen kopurua handia da, bi hiztun komunitateen arteko ezkontzak gero eta ugariagoak dira eta komunikabideek ingelesa erabiltzen dute nagusiki. Horrek guztiak sortzen duen presioak ez du gazteengan frantsesarekiko loturarik sortzen.

Ipar Ameriketako frantsesak Quebecen baino ez du arnasbiderik. Han 250.000.000 ingeles hiztunen artean 6.000.000 baitira frantsesaren hiztunak.

Norvegiera ere ez dago Ipar Ameriketako bere onenean. 1825 urtetik aurrera, XIX. mendean zehar, milioi erditik gorako Holandar emigratu ziren Estatu Batuetara, gehien bat Illinois eta Iowaren iparraldera, Wisconsin eta Minnesotaren mendebaldera, Hegoaldeko Dakotaren ekialdera eta Iparraldeko Dakotara, eta gutxi batzuk Nebraska, Montana, Washington, Oregon eta Kaliforniara.

Horren ondorioz, XIX. mendearen amaieran lur horietan zehar norvegiera zen nagusi. Baina 1910ean norvegiarrek behera egin zuen belaunaldi berriak leku berri horietan integratu nahi zirelako eta norvegiera familian geratu zen zokoratuta. Dena den, ezin dugu esan hilda dagoenik. Estatu Batuetako 1980ko erroldan jatorri norvegiarra aitortu zuten 4.120.000 ipar amerikarren artean 184.491 aitortu baitzuten norvegiaraz hitz egiten zutela.

**MEXIKOTIK HEGO MUTURRERAINOKO AMERIKAN** dauden 500 hizkuntza amerindiarretatik herena ere arriskuan dago eta sarraskirik handiena Brasilen gertatuko omen da, han hizkuntza gehienak komunitate txiki-txikiek erabiltzen baitituzte.

Maia familiako hizkuntzak erabiltzen dituztenak asko dira. Guatemalan 6 milioitik gora, eta Yucatan, Quintana, Roo, Chiapas, Tabasko, Kanpetxe eta San Luis Potosí Mexikoko estatuetan ere asko dira hiztunak:

- Mexikoko Yukatanen hitz egiten den yukatekera eta Guatemalan hitz egiten den kitxe hizkuntzek 500.000tik gora.
- Ketxi, katxikel eta mam hizkuntzek 400.000-700.000 hiztun bitartean.

Kopuruei begiratuta esango genuke bizitzeko esperantza dutela, baina ez dugu ahaztu behar gaztearen ondoan bizi direla, eta ondorioz, presiopean. Presio hori asko handiagoa da beste hizkuntza maien gainean, hainbeste hiztun ez dituzten horien gainean (10.000 eta 100 hiztun bitartean) hain zuzen. Hizkuntza gutxitu horietatik lau ez zaizkie umeei transmititzen, edo oso leku gutxitan. Hizkuntza horiek herri inguruetan dute bizitasun handiagoa, eta herri inguruetatik hiri inguruetara mugitzen diren hiztunek alde batera uzten dituzte hizkuntza horiek.

Karibeko hizkuntzen familia, XVI. mendean espainiarrak heldu aurretik, bizitasun handia zeukana, egun ez dago bere onenean. Makusi hizkuntzak (15.000 hiztun) salbu, beste guztiek 1.000 hiztunetik behera daukate. 1990ean matipua, amapá eta sikiana hizkuntzek 40, 37, eta 33 hiztun zituzten, hurrenez hurren. Egun ez dakigu zer gertatu zaien.

Brasilen 200 hizkuntza indiar inguru daude, eta gehienak oso komunitate txikitako hizkuntzak dira. Tupí familiako hizkuntza asko (lehen Amazonaseko erdialdeko haranean zehar eta Boliviako mugatik hurbil dagoen Rondônia estatuan hitz egiten zen) egun ziurrenik hilda daude, apiaka eta purubora, esaterako. Gé familiak lehen hizkuntza asko zituen, baina gaur egun gutxi batzuk baino ez daude.

Kolonbian espainiera eta kreoleraz gain, palenke hizkuntza eta 65 hizkuntza indiar zeuden. Hizkuntza horietako 10 isolatuta daude, eta gainerako 55ak 12 familia ezberdinetakoak dira. Batzuk garrantzizkoak dira Erdialdeko Amerikan eta Hego Ameriketara (chibcha, karibear, arauak eta tupi), eta gainerakoak Kolonbian daude bakarrik (guajiba, huitota, tukana etab).

## ASIA

Bertan Junyenten arabera (1999) 4 hizkuntza familia daude:

- **Austriarra:** Familia honek biltzen ditu orain arte aparte sailkatzen ziren talde austroasiarra, miao-yao, daiko eta austronesiarra. Talde austroasiarraren hizkuntzak Asiako hegoaldean hitz egiten dira (vietnamiera, khemerera, benglongera, blangera, wa etab); daiko familiakoak Nikobar irletan (hemen ere hitz egiten dira austroasiarrak) erabiltzen dira (lao, tai, buyí, dai, can etab); austronesikoak Madagaskarretik Paskua irlaraino eta Taiwan eta Hawaii Zeland Berriraino hitz egiten dira (malgatxea, samoera, tahitiera, indonesiera, maoriera, tagalua, malaiera etab).
- **Paleosiberiarra:** Familia honetakoak Siberiako ipar-ekialdean erabiltzen dira, eta ez daude egoera onean, desagertzeko bidean baizik (txuktxiera, aliutorrera, itelmenera etab).
- **Dravidarra:** Hizkuntza hauek Indiako hegoaldean eta Sri Lankaren iparraldean erabiltzen dira (brahuiera, malayalamera, tamileria etab).
- **Txinotibetarra:** Familia honetakoak dira txinera, tibetera eta birmaniera, besteak beste, eta familia honetakoak Txina gehienez, Tibeten, Myanmarren eta horien ondoko lekuetan hitz egiten dira.

**Asiako hego-ekialdean** hizkuntza bakoitzak dituen hiztun kopurua handia da, baina dauden 600-700 hizkuntzen artean 40 estatuek hartzen dituzten politiken arabera onera edo txarrerara egin dezakete.

Asiako hego-ekialdean honako hizkuntzak daude: txino-tibetarrak, austroasiarrak, tai, miao-yao eta austronesiarrak.

Arriskuan daude Vietnam eta Laoseko muona, palaungoa, jamua eta bahnara. Beste hizkuntza austroasiar batzuk, mon-jemer taldekoak desagertzeko bidean daude edo desagertuta.

**Asiako ipar-ekialdean**, ordea, ezagutzen diren 47 hizkuntzetatik seik baino ez dute errusierarekin batera bizitzen jarraitzeko aukera handirik: 20 hiltzeko zorian daude, 8 desagertzeko bidean eta 13 arriskuan. Lehenengoek 10 hiztun dituzte gehienez; bigarrenak erabiliak dira baina ez zaie seme-alabei transmititzen eta hirugarrenak haurtzaroan badituzte hiztunak, baina gero eta gutxiago.

## INDONESIA

Indopazifiarra edo papuarra da Indonesiako hizkuntza familia: Hizkuntza hauek Papua Ginea Berrian eta Andaman irletan hitz egiten dira. Egun 600, edo 800 hizkuntza inguru daude (andamana, kamaniera, adcerera eta abar) eta erdiek 1.000 hiztunetik behera daukate. Desagertua den tasmaniera ere talde honetakoa zen.

Hizkuntzetan aberatsa da Indonesia, baina, 15 hizkuntza hil dira XX. mendean zehar. Egungo 670 hizkuntzetatik 52k 200 hiztunetik behera daukate; 121ek 200 eta 1.000 hiztun bitartean; eta, 200ek 1.000 eta 10.000 hiztun bitartean.

Papua Ginea Berria aberatsa da hizkuntzetan, baita desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzatan ere. Bertan 130 hizkuntza daude 200 hiztun baino gutxiagorekin; 1.000 hiztun dituzten 290 hizkuntza; eta 1.000 hiztunetik gora dauzkaten hizkuntza asko edadetuek baino ez dakizkite. Bertako hirietan tok pisin eta hiri motu pidginak dira nagusi, eta horiek izugarritzko presioa sortzen dute gainerako hizkuntzen gainean.

## AUSTRALIA

Familia australiarrak Australiako jatorrizko hizkuntzak biltzen ditu. Egun familia honetan 200 hizkuntzatik behera daude, ia denek 1.000 hiztun ere ez daukate, eta 38k hiztun bakarra, beraz, oso egoera kezkarria daude.

Orain dela 200 urte inguru, europarrak kontinente horretara heldu aurretik, bertan milioi bat edo 2 milioi aborigen bizi ziren eta 250 hizkuntza ezberdin zeuden. Horietako 50 hilda daude europarrak heldu zirenetik. Egun 150 hizkuntza daude. Gainerako 50 hizkuntzetatik asko ez dakizkite 15 urtetik beherakoek. 1.000 hiztunetik gora 5-10 hizkuntzek baino ez dute. Horiek daude gizon zuriak geroago sartu ziren inguruetan edo guztiz bete ez dituztenetan, hau da, iparraldeko lurraldetan, Australiaren hegoaldean, mendebaldean eta Queenslanden iparraldean.

## EUROPA

Europar Junyenten arabera (1999) 5 hizkuntza familia ditugu nagusiki:

- **Uraletakoa:** Familia honen jatorria Uralen iparraldean dago. Egun Europako iparraldearen zati handi batean zabaldua dago, Finlandia eta Estoniatik hasita Uraletaraino, eta handik Siberiako iparralderaino. Geografikoki guztiz isolaturik hungariara dugu familia honetakoa. Azken honen azalpena aspaldidanik gertatutako armaden konkistetan datza.



Honen barruan estoniera, samiera, khantiera, mardvinera, votiacera, finesa, kareliera eta hungariera.

- **Kaukasoarra:** hizkuntza familia hori Kaukaso ingurukoa da, itsaso Beltza eta Kaspioren artean erabilia. Berrogei bat hizkuntza dira, baina ia gehienak ezezagunak (georgiera, txetxeniera, avaroa eta aguliera etab).
- **Altaiarra:** Familia hau Balkanetatik Asiako ipar-ekialderaino dago zabalduta. Bi adar ditu: batetik turkikera (turkiera, uzbekera, azerbaijanera, tartariera, kazakhera, kirgizera, khalkera etab), eta bestetik, mongol-tuntusera (mongoliera, oiratera, buriatera, jaljera, neguidala, pao-ana, daguroa, orochoa, mantxuera, etab).
- **Indoeuropearra:** Familia honek Europako hizkuntza gehienak eta Asiako asko ere biltzen ditu. Hizkuntza honen jatorria Errusiaren hegoaldean kokatzen dute adituek. Familia honek 2.500 milioi hiztun inguru ditu eta honako azpimultzoak daude:
  - Anatoliera: hizkuntza desagertuak (hititera, paliera, lidiera, likiera eta luvitera)
  - Armeniera: armeniera
  - Tokarioa: desagertua
  - Indoiranieraren barruan indikoa (erromania, hindiera, urduera, nepalera, bengalera, desagertua den sanskritoa etab), eta iraniera (paxtuera, kurduera, persiera, etab)
  - Albaniera
  - Grekoa
  - Latindar-faliskanoaren barruan bi adar: osko-unbroa (oskoa, umbro eta sabelioera), latindar-faliskanoa (sardiera, erromatarra, italiara, frantsesa, friuliera, ladinera, romantxea, katalanera, gaztelera, galiziera, portugesa, okzitaniera etab)
  - Zeltarra: Irlandako gaelikoa, Eskoziako gaelikoa, bretoiera eta galesera.
  - Germaniera: daniera, suediera, norvegiera, islandiera, faroera, alemana, yiddisha, luxenburgera, norvegiera, afrikaansa, frisiera eta ingelesa.
  - Balto eslaviera: honek ere bi azpimultzo ditu; batetik, baltikera (letoniera eta lituaniera, eta desagertua den prusiera), eta bestetik, eslaviera (errusiera, bielorrusiera, ukrainiera, poloniera, Kasubiera, txekera, eslovakiera, esloveniera, serbiera, kroaziera, bulgariera)

Europar arriskuan dagoen hizkuntza bat bretoiera dugu, Frantziaren ipar-ekialdean oso denbora laburrean hiztun kopuru handia galdu du; XX. mendearen hasieran milioi bat hiztun zituen, eta egun, hiztun horietatik hiru laurdenak gutxienez galdu ditu. Bretoiera arriskutik salbatzeko ahalegin handia egin behar da, bestela 50 urtean desagertu liteke. Kornuallesen hitz egiten zen kornubiera eta Man irlako manxera hizkuntza desagertu ziren. Egun sostengu handia jasotzen ari dira, baina hizkuntza batek azken jatorrizko hiztuna galdu duenean, ezinezkoa bada ere, izugarri zaila da hura biziberritzea.

## 7- HIZKUNTZA HERIOTZAREN KAUSAK

Kausen sailkapen zehatzagoa ematearren honako hau:

### Kausa fisikoak

- **Naturak eragindako hondamendiengatik.** Hizkuntza baten hiztun guztiak hiltzen direnean, ezinbestean hizkuntza bera era hiltzen da. Datu zehatzik ezin eman badugu ere, argi dago aparteko lekuetan bizi diren komunitate txikiak erasan ditzaketela lurrikarek, urakanek, itsasikarek, uholdeek eta horrelakoek.

1815ean gertatu zen sumendi baten erupzioak tanbora<sup>21</sup> hizkuntza desagerrarazi zuen. Tanbora tribukoak Sumbaua irlan bizi ziren, Java eta Timorren arteko Sonda irlan (Indonesiako artxipelagoan). Egun tanbora hizkuntzari buruz hiztegi labur bat baino ez dugu, XIX. mendearen hasieran bidaiaria ingeles batek egina.

1998ko uztailaren 17an lurrikara batek Nueva Guinea Papuako E. Sanaundaun probintziako kostaldea eraso zuen<sup>22</sup>, 2.200 pertsona hil eta 10.000 utzi zituen etxerik gabe. Ondorioz, sisanoa, varapua, aropera eta malolera suntsituta geratu ziren, eta biztanle aroper eta varapuen %30 hil ziren. Bizirik atera zirenak beste leku batzuetara joan ziren edo eraman zituzten. Zalantzan dago horien hizkuntzek leku aldatzea jasan ondoren bizirik jarraituko duten.

- **Hizkuntzak gizakien eraginez ere desagertu daitezke.** Batzuetan gizakiak hizkuntza zehatz bateko hiztunak hiltzen ditu, eta horiekin batera horien hizkuntza ere; beste batzuetan, ordea, hizkuntzaren kontra baino ez du jotzen, eta horrelakoetan kultura da desagertzen dena.

Lehenengo kasuaren adibideak<sup>23</sup> honakoak dira:

- 1226an Gengis Khaneko mongoliarrek Txinako mendebaldeko xixiak edo tangutak (birmaniar-tibetarrak) hil zituzten, eta horiekin batera hizkuntza ere desagertu zen.
- Tasmanian erabiltzen zituzten hizkuntzen berririk ez dugu, hango biztanleak erail zituzten eta.
- XX mendean kautxo silvestrearekin lan egiten zuten konpainiek ere ikaragarrikoak egin zituzten andoke tribukoekin (Brasileko ipar-mendebaldeko eta Kolonbiako hego-ekialdekoak)
- Salvadorren 1932an 25.000 indiar hil zituzten eta horiekin batera kakaopera eta lenka hizkuntzak.
- Kolonbian XX. mendean oraindik ere indiarrek hil dituzte.

---

<sup>21</sup> Crystal (2001)

<sup>22</sup> Cristal (1999)

<sup>23</sup> Hagege (2002)

Bigarren kasuaren adibideak<sup>24</sup>, honakoak dira:

- Gizakiak hizkuntza zehatz bat debekatu edota hizkuntza hori hitz egiten duen orori eraso egiten badio, hiztunak erabaki dezake, jasaten ari den presioaren eraginez, bere hizkuntza uztea edota ezkutatzea. Esaterako, Pipil hizkuntzaren hiztunek (Salvador) lehen aipatu dudan Salvadorreko 1932ko erasoetan kakaopera eta lenka tribukoak hiltzen ari zirela ikusita, bere hizkuntza uztea erabaki zuten. Gaur egun hiltzeko zorian edo hilda egongo da.
  - Hiztunak beren lurretik kanpora eramaten dituzte, indarrez. Hala gertatu zen Australia, Estatu Batuetako eta Kanadako hizkuntza edo hiztun-komunitate askorekin. Beren lurretik mugitu dituzten tribuak beste hainbatekin nahasten dituzte, eta komunikazio beharrak eramaten ditu beste hizkuntza batzuk erabiltzera. Tribu bakoitzeko hizkuntza familian baino ez da erabiltzen eta denboraren poderioz gero eta gehiago komunikatzen direnez deportatutako tribu guztien artean, tribu bakoitzeko hizkuntzak zentzua galtzen du eta askotan desagertzen da.
- Beste batzuetan hiztunek utzi behar izaten dituzte beren bizilekuak, hango ***egoera klimatiko edo ekonomikoak hiztunentzako txarrak direlako***.
    - Irlandan patatak jasan zuen plagaren ondoriozko goseteak<sup>25</sup> jende asko hil eta beste asko emigratzera bultzatu zuen. 1841ean 8.5 milioi pertsona bizi ziren eta 10 urte geroago 6.5 milioi pertsona baino ez. Nekazari arloetan eragina askoz handiagoa izan zen, eta kontuan hartuta gune horietan hitz egiten zela gehien bat irlandera, horrek hizkuntzaren atzerakada eragin zuen

- ***Gaixotasunak***

Gaixotasun arruntzat har daitezkeen batzuek ikaragarriko kaltea ekar diezazkiekete horien aurrean defentsarik ez duten komunitateei, esaterako gripeak edo katarro arruntak.

Europarrak Ameriketara heldu zirenetik 200 urte igaro aurretik indigenen %90 hil ziren, europarrek eramán zituzten gaixotasun askoren ondorioz. Espainiarrak erdialdeko Mexikora heldu zirenean, 1518an, 25 milioitik gorako biztanleria zuen, baina 1620an 1,6 milioi baino ez<sup>26</sup>.

Gaur egun ere gertatzen da talde indiarrek gaixotasunaren kausaz desagertzea edo arriskuan jartzea. Horren adibide bat: *nomatsiguenga* hizkuntza dugu. Junín departamentuko hizkuntza horrek 5.000 hiztunetik gora ditu, eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa egon badagoen arren, arriskuan dago batetik eskolan gaztelaniak baino ez baitu lekurik, eta bestetik hiztunek pairatzen dituzten gaixotasunengatik; esaterako 1956an gripe epidemia bategatik hiztunen erdiak hil

---

<sup>24</sup> Hagege (2002)

<sup>25</sup> Crystal (2001)

<sup>26</sup> Crystal (1999)

ziren<sup>27</sup>. Berdin gertatu zitzaien 1984an Amazoniako oihaneko nahuarrei (Ucayali departamentukoak) peruarrekin XX. Mendeko 70. edo 80. hamarkadan harremanetan hasi ostean.

## **Kausa ekonomiko eta sozialak**

Kasu honetan hiztunak ez dira desagertzen, eta ez daude beren hizkuntza bazter uzten derrigortuta. Ematen du beren borondatez egiten dutela. Bizimodu hobea lortzeko balio ekonomiko eta sozial handiagoko hizkuntza batera jotzen dute.

- ***Indar handiko ekonomia baten presioa***<sup>28</sup>

Makina ekonomikoaren eta egitura administratiboaren hizkuntzak indar handia du. Hizkuntza amerindiar askoren galeraren kausa bat izan daiteke. Anglofonoak indioen lurretara heldu eta bere egitura ekonomikoak ezarri zituzten. Gainera anglosaxoiak gehienak ziren. Horrek gero eta beharrezkoago egin zien indiarrei ingelesez jakitea, gizarte berri horretan integratzeko.

Afrikan, esaterako, ehiztariak oso bizimodu eskasa dute. Artzainen ereduaren presioa jasaten dute. Eredu horretan integratzen badira pobrezia gutxiago eta bizimodu hobea dute. Horren ondorioz, ehiztarien gizarteak arrazoi ekonomiko eta sozialak direla eta, beren hizkuntzak uzten dituzte alde batean eta artzainen taldearena hartzen dute.

Etiopiako hego-mendebaldeko kwegu tribukoak batez ere hipopotamoak ehizatzen dituzte eta erleetatik lortzen dutenarekin aguamiel famatua ateratzen dute, eta salerosketetan ibiltzen dira mursi eta bodi tribukoekin. Harreman horietatik sortzen diren senar-emazteen seme alabei nekez transmitituko zaie kwegu hizkuntza. Pentsatzen dute zaila dela, eta gainera balio sozioekonomiko gutxiko hizkuntza da.

Horrela ere gertatzen zaie baserritarrei hiriaren aurrean. Nubio hizkuntzak, familia nilo-sahariarrarena, oraindik ere Sudan eta Egipton 200.000 hiztun dauzka. Egipton nubio gazteek Kairo eta Alexandriara jotzen dute lan hobearen bila. Bertan elektrizitatea dago, irratia eta telebista. Horrek laguntzen du horien artean arabiera zabaltzen eta horrek bultzatzen ditu haien seme-alabei arabiera transmititzen. Nubioak herri arloan baino ez dio beherakadari eutsi.

Badirudi, oro har, hiritartzeak hizkuntza handiei laguntzen diela, eta herriko bizimodua, ordea, gutxituei. Ez dut esaten beti hala denik, baina argi dago lotura horrek ez diola batere laguntzen hizkuntzaren prestigioari, gehienetan hiria modernitatearekin, eta herria atzerapenarekin lotzen direlako.

- ***Hizkuntza berria duten hiztun asko beste hizkuntza bat duen inguru batera bizitzera mugitzen direlako***

Hizkuntza bat beste hizkuntza dominatzaile baten alboan bizi denean, gerta daiteke hizkuntza dominatzaileak txikiari lekua jatea, eta hizkuntza desagertzeko bidean jartzea. Ipar Ameriketara eta Australian esaterako ingelesak hartu zuen hizkuntza aborigenen

---

<sup>27</sup> Uranga eta beste (2007)

<sup>28</sup> Hagege (2002)

lekua. Hego Ameriketara gaztelera eta portugesa izen ziren dominatzaileak. Ipar Asian, errusiera. Europako kolonialismoa ez ezik beste leku batzuetakoak ere kendu die lekua hainbat hizkuntzari, esaterako arabierak Ipar Afrikan.

Horrelako jende mugimenduak gaur egun ere gertatzen dira. Pisuak hiri handietan garestiak direnez, gazte asko herrietara mugitzen da bizitzera, eta mugimendu horietan ez da kontuan hartzen bertakoen eta joandakoen hizkuntza berdina ala ezberdina den, ezta joandakoenak bertakoena kaltetu dezakeen ala ez. Nire iritziz, horrelako mugimenduak baimendu aurretik gobernuak edo arlo horretan boterea duenak ondorio linguistikoak ere aztertu beharko lituzke. Industrializazio garaian ere jende asko mugitu zen Espainiako probintzia askotatik Euskal Herrira eta horrek euskarari ez zion onik egin.

Kultura dominatzaile batek beste bat asimilatzen duenean, prozesu horretan honako urratsak errepikatzen dira:

- Hizkuntza gutxituetan hiztunek izugarriko presioa jasaten dute, indar politiko, sozial edota ekonomikoen aldetik. Presioa izan daiteke goitik beherakoa, gomendio edota gobernuak emandako legeen bitartez; edo behetik gorakoa talde presioa edo behar ekonomikoengatik
- Elebitasun aldia dator gero. Jendea gero eta trebeagoa da hizkuntza dominatzailean, baina oraindik ere hizkuntza gutxituan hitz egiteko gaitasuna daukate. Gero, azkar normalean, elebitasuna gainbehera hasten da eta hizkuntza dominatzaileak gero eta gehiagotan betetzen ditu lehen gutxituarenak ziren esparruak.
- Belaunaldi gazteak bereago sentitzen du dominatzailea gutxitua baino. Askotan gurasoek zein seme-alabek lotsa ere sentitzen dute hizkuntza zaharrarekiko. Gurasoek gero eta gutxiago erabiltzen dute beren hizkuntza seme-alabekin, eta gero eta aukera urriagoak dituzte hizkuntza beste familia batzuekin erabiltzeko. Ondorioz, hizkuntzak familian baino ez du lekurik, etxetik kanpo umeek, belaunaldi berriek ez baitute hizkuntza zaharra erabiltzen. Hizkuntza hori desagertzeko bidean dago.

## **Kausa politikoak**

- *Estatuaren ideia*

Badirudi Europako konkista kolonialekin batera hasi zela hizkuntza dibertsitatearen galera-erritmoa azkartzen; horien ondorioz garai horretako hizkuntzen % 15 desagerrarazi baitziren. Azken hiru mendeotan Europak hamar bat hizkuntza galdu ditu, Hagegek (2002) dioen bezala, Australian XVIII mendearen amaierako 250 hizkuntzetatik 20 baino ez dago bizirik eta Brasilen 540 (hizkuntzen hiru laurdenak) galdu ziren kolonizazio portugesa hasi zenetik (1530). Beraz, estatu nazioak jaiotzea ere ez zen hizkuntzaren dibertsitatearako lagungarria izan, estatuaren batasunak berdintasun linguistikoarekin lotzen baitzuten. Horrelakoetan hizkuntza bat hartu zen estatuko hizkuntzat eta gainerakoak baztertu edo desagerrarazi zituzten.

Botere politikoez batzuetan hizkuntza baztertzen dute eta ez diote garrantzizko arloetan lekurik uzten, eta zeharka bada ere, desagertzeko bidean jartzen dute, baina beste batzuetan gehiago saiatzen dira eta izugarritzko ahaleginak egiten dituzte hizkuntza desagerrarazteko. Horren adibide<sup>29</sup>:

- Chamorro hizkuntza, Guam, Saipan, Rota, Tinian, Pagan, Anatahan eta alamaganen hitz egiten zena. Iparramerikarrak, eta espainiarrak lehenago ere berdin, disposizio administratiboen bidez hizkuntza hiltzen saiatu ziren eta izugarri jaitsi zen hiztunen kopurua. Hala ere, ez zuten guztiz hiltzea lortu.

Adibide horren argitan ez dugu pentsatu behar kanpotarrek baino ez diotela besteen hizkuntzari erasotzen, barrutik ere etorri ohi baitira erasoak.

- Eskozian bertan, Eskoziako parlamentuak ezarri zuen 1616an parrokia bakoitzean eskolek ingelesa erabili behar zutela eta gaeliko-eskoziera baztertu, hau da, hezkuntzatik kanpo utzi.

Estatuek lege, ebazpen eta erabaki politikoez gain, beste zenbait bide ere erabili dituzte askotan interesatzen ez zaien hizkuntza desagerrarazteko. Horretarako haien esku dute eskola, armada eta komunikabideak.

- Eskolaren adibide argia dugu Francoren garaikoa, eskola nazional katolikoan ikasleei eratzun bat jartzen zieten euskaraz hitz egiteagatik, eta irakasten zietenaren arabera hizkuntza bakarra gaztelera zen, besteak dialektotzat baino ez zituzten. Komunikabideetan gaztelera baino ez zuen lekurik. Badakit egoera ez zela demokratikoa eta diktadura batez ari naizela, baina estatua demokratikoa izan arren, bere esku ditu eskola, komunikabideak eta armada eta horietan nolako hizkuntza politika duen herriak, halakoa izango da hizkuntzen agerpena.
- XIX mendearen bukaerako Kanada eta Estatu Batuetako gobernuen politikari begiratzen badiegu, ikusiko dugu izugarri saiatu zirela indiarren eskola anglofonoan integratzen. Horretarako umeak beren gurasoetatik apartatu eta urrutiko barnetegietara bidaltzen zituzten ikastera. Eskola guztietan debekatuta zegoen hizkuntza amerindiarren erabiltzea eta hitz eginez gero, ikasleak zigortzen zituzten. Zenbait lekutan sistema horrek indarrean zirauen hirurogeita hamargarren hamarkadan. Politika modu horrek familiak bere hizkuntza gutxistera eramaten zituen, eta horren ondorioz, 1979an Alaskako hegoaldean atopaska familiako hizkuntza bakarra zegoen, kutxin hizkuntza; hizkuntza komunitate aleutiar bakarra zegoen, eta hizkuntza eskimalak, iupika eta inupiak hizkuntzak desagertzeko zorian zeuden.
- Australian ere antzerako hizkuntza politika erabili zuten, ingelesa ezarri eta bertako hizkuntzak desagerrarazteko. 1814tik aurrera, mende batez gutxienez, ume asko, bertako umeen %30 inguru, beren familietatik aldendu eta familia ingelesetara, barnetegira edota orfelinatoetara eraman zituzten. Bertan ingelesez baino ezin zuten hitz egin. Hirurogeita hamargarren hamarkadan gobernu australiarrak berrikusi zuen bertako hizkuntzekiko hizkuntza politika. Beranduegi ote?

---

<sup>29</sup> Hagege (2002)

Laburbilduz, kausak hiru multzotan banatu ditut (fisiko, sozio-ekonomiko, eta politikoak), baina horrek ez du esan nahi hizkuntza baten heriotza horietako kausa bakar bati egotzi ahal diogunik. Normalean kausa batek baino gehiagok eragiten dute batera hizkuntza hiltzeko. Kausez ari garela garrantzizkoa iruditzen zait prestigioa aipatzea. Berez, ez da aparteko kausa bat, baina esango nuke prestigioa galtzea hizkuntza gehienek galeraren kausen parte bat dela. Dena den, atzera begiratzen badugu, ikusiko dugu prestigioa galtzea normalean kausa ekonomiko, sozial edota politikoek eragiten dutela, hau da, gehienetan lehen aipatutako kausa horien ondorio bat dela.

## **8- NOIZ ESATEN DUGU HIZKUNTZA ARRISKUAN DAGOELA?**

Honi dagokionez gehien erabiltzen den irizpidea hiztun kopurua izaten da, eta horixe erabili da aurreko ataletan hizkuntza batzuei buruzko datuak emateko orduan, baina argi dago hori ez dela erabakiorra izaten hizkuntza bat arriskuan dagoen ala ez erabakitzeke orduan, aurrerago azalduko dudan moduan.

Hasteko hizkuntza bat arriskuan dagoela esateko hona hainbat hizkuntzalariren iritziak:

Dorianek (1980) hiru sintoma zerrendatzen ditu:

- Gero eta hiztun gutxiago izatea.
- Gero eta erabilera-gune gutxiagotan erabiltzea.
- Hizkuntzaren beraren egiturak sinpletzea.

Michael Kraussek (1992) honi dagokionez hiru hizkuntza-kategoria bereizten ditu:

- Hiltzeko zorian: Umeek lehen hizkuntza moduan ikasten ez dutena.
- Arriskuan: Oraindik ere umeek lehen hizkuntza moduan ikasi bai, baina oraingo baldintzek beren hartan badiraute, hurrengo mendean umeek ikasiko ez dituztenak.
- Arriskutik salbu: Estatuaren aldetik laguntza duten eta hiztun kopuru handia duten hizkuntzak.

Stephen Wurm-ek (1998) hizkuntza ahulenen artean honako sailkapena egiten du:

- Arriskuan egon ahal direnak: Hizkuntza dominatzaile batekin batera bizi dira eta horren aurrean desabantaila sozial eta ekonomikoak dituzte. Gainera haurren artean gero eta hiztun gutxiago daude.
- Arriskuan daudenak: Haur gutxi batzuek edo batek ere ez dute hizkuntza ikasten eta hiztun gaitu gazteenak helduak dira.
- Arrisku bizian: Hiztun gaitu gazteenek 50 urtetik gora dute.
- Hiltzeko zorian. Hiztun gaitu gutxi batzuk baino ez daude, eta gehienak zaharrak
- Desagertuak: Hiztunik ez dutenak.

Arrisku maila hizkuntza horrek betetzen dituen funtzioei zein izaten dituen aldaketa estrukturaleri begiratuta ere nolabait neur daiteke. Funtzioei dagokienez, arriskuan

dauden hizkuntzek gero eta funtzio gehiago galtzen dituzte, beste hizkuntza batek betetzen ditu. Afrikan, esaterako, hizkuntza indigena askok galdu dute politika eta hezkuntza eremua etab, eta ingelesak, swahiliak edo beste hizkuntza batek bete ditu lehen bertako hizkuntzek betetzen zituzten funtzio horiek. Batzuek hainbeste esparru galtzen dituzte, non bakar batean baino ez diren mantentzen, horren adibide gees dugu (Etiopia), gaur egun liturgian baino erabiltzen ez dena.

Estrukturari begiratuta hizkuntzaren egiturak alda daitezke beste hizkuntza baten eraginez. Horrelakoetan kode alternantzia egoten da mehatxuan dagoen hizkuntza eta dominatzailearen artean, hizkuntza gutxituaren ezaugarri gramatikalak aldatu eta dominatzailearen inflexioak eta hitz funtzionalak erabiltzen dira, gazteek betiko lexikoa galtzen doaz eta gero eta gehiago ezagutzen dituzte dominatzailetik hartutako maileguak. Hala ere, estrukturaren aldaketa horiek batzuetan ere normalak izan daitezke beste baten alboan bizi den hizkuntza batean, inolako galera prozesuan egon gabe. Hortaz, oso zaila da normaltasuna eta ordezkapenaren bideen arteko muga zehaztea.

## **9- HIZKUNTZAREN EGOERA**

Badirudi modu batean edo bestean zehaztuta dugula zer den hizkuntza bat arriskuan egotea, baina zertarako balio digu hori jakiteak? Nik esango nuke hizkuntza horren alde lan egitera mugiarazteko balio beharko ligukeela. Ondo, bada, egin dezagun zerbait hizkuntza hori arriskutik urrutiratzeko. Zer, baina? Galdera horri erantzuteko garrantzizkoa iruditzen zait aipatzea hizkuntzalari asko saiatu izan direla hizkuntza bakoitzaren egoera ezagutzeko moduak edo metodoak lantzen, hau da, hizkuntzaren egoera zehatzaren berri emango digun argazkia ateratzen.

Hizkuntzalarien asmoa zen argazkian ikusten zituzten indarguneak eta ahulguneak kontuan hartzea, eta horietatik abiatuta, zertan egin behar zen indar ikusita, hizkuntzaren egoera hobetzeko proposamenak egin eta martxan jartzea.

Hizkuntzaren egoera ezagutzeko hona hainbat proposamen:

### **UNESCOren Language Vitality and Endangerment <sup>30</sup> izeneko artikulukoa**

Horren arabera hizkuntzaren egoera ezagutzeko hiru atal nagusi hartu behar dira kontuan: hizkuntzaren bizitasuna, gobernuaren eta hiztunen hizkuntzarekiko jarrera, eta hizkuntzaren inguruan dagoen dokumentazioa.

Hizkuntzaren bizitasunaren berri emateko sei faktore proposatzen ditu Unescok (1-6), beste bi jarrera ebaluatzeko (7-8) eta bederatzigarren bat dokumentazioaren ingurukoa.

#### **1. faktorea: Belaunaldien arteko transmisioa**

Fishmanek (1991) zioenaren arabera, hauxe da hizkuntzaren bizitasuna neurtzeko gehien erabiltzen den faktorea.

---

<sup>30</sup> [www.unesco.org/cultura/es](http://www.unesco.org/cultura/es)



Unescok belaunaldien arteko transmisioan 6 maila bereizten ditu:

- Salbu (5): Belaunaldi guztiek erabiltzen dute hizkuntza. Belaunaldien arteko transmisioa etengabea da.
- Egonkor baina guztiz salbu ez (5-): Belaunaldi guztiek erabiltzen dute erabilera esparru gehienetan, baina hizkuntza beste hizkuntza dominatzaile batekin edo gehiagorekin bizi da eta hizkuntza dominatzaile horiek hainbat erabilera esparru kendu dizkiote jatorrizko hizkuntzari.
- Salbu ez dagoena (4): Haur eta familia gehienek erabiltzen dute beren jatorrizko hizkuntza, baina gehienetan familia barruan. Gero eta erabilera esparru gutxiago betetzen ditu hizkuntza horrek.
- Arriskuan (3): Umeek ez dute hizkuntza lehen hizkuntza gisa ikasten etxean. Hitzun gazteenak gurasoen belaunaldikoak dira.
- Arrisku bizian (2): Hitzunak belaunaldi zaharrenekoak dira. Gurasoek aitona-amonai ulertzen diete, baina ez dute hizkuntza seme-alabekin erabiltzen.
- Arrisku bizi-bizian (1): Hitzun gazteenak zaharrenean belaunaldikoak dira, eta hizkuntza ez dute eguneroko komunikaziorako erabiltzen.
- Desagertua (0): Inork ez daki hizkuntza horretan hitz egiten.

## **2. faktorea:** *Hitzun kopurua*

Argi dago hitzun komunitate txikiak desagertzeko arrisku handiagoa dutela (gerrengatik, naturak eragindako hondamendiengatik etab) edo errazago nahas daitezkeela ondoko talde batekin, beren hizkuntza eta kultura alde batera utzita.

Hizkuntza batek hitzun kopuru handia izan arren, ezerk ez du ziurtatzen hainbeste hitzun dituen hizkuntza bat, belaunaldi batzuen buruan bizirik egongo denik.

## **3. faktorea:** *Hitzun kopuruaren portzentajea komunitate osoaren gainean*

Hauexek dira mailak:

- Salbu (5): Denek hitz egiten dute.
- Ez guztiz salbu (4): Ia denek hitz egiten dute.
- Arriskuan (3): Gehienek erabiltzen dute.
- Arrisku bizian (2): Gutxik hitz egiten dute.
- Arrisku bizi-bizian (1): Oso gutxik erabiltzen dute.
- Desagertua (0): Inork ez du hitz egiten.

## **4. faktorea:** *Hizkuntzak betetzen dituen erabilera-esparruak*

Non, norekin eta zertarako erabiltzen den hizkuntza hori. Faktore honek hurrengo belaunaldiarekiko transmisioan eragin handia du.

Honi dagokionez hauexek dira bereizten diren mailak:

- Erabilera unibertsala (5): Hizkuntza erabilera esparru guztietan eta edozertarako erabiltzen da.

- Hizkuntza anitzen arteko parekotasuna (4): Egoera honetan hizkuntza dominatzaile bat/zuk daude komunitate etnolinguistikoaren hizkuntzarekin batera. Dominatzaileak betetzen ditu erabilera-esparru ofizial gehienak edo guztiak (gubernua, hezkuntza, administrazioa etab), eta besteak gainerako arlo publikoak eta pribatu guztiak.
- Hizkuntzaren erabilera-esparruak gutxitzea (3): Hizkuntza menperatua erabilera esparruak galtzen doa, eta horren eraginez, guraso batzuek etxean ere erabiltzen dute hizkuntza dominatzailea seme-alabekin.
- Erabilera-esparru mugatuak (2): Hizkuntza menperatua komunitatearen jaialdietan eta zenbait ospakizunetan baino ez da erabiltzen. Baliteke zenbait etxetan aiton-amonekin erabiltzea. Oro har, jende gehienak ulertzen du hizkuntza, baina ez daki hitz egiten.
- Erabilera-esparruak izugarri murriztea (1): Egoera berezietan eta oso jende gutxirekin erabiltzen da hizkuntza, esaterako lider espiritualekin.
- Desagertua (0): Inork, inon eta inoiz erabiltzen ez duenean.

**5. faktorea:** *Erabilera-esparru berriak sortzen direnean (komunikabide eta abarretan), hizkuntzak horietan betetzen duen lekua*

- Hizkuntza dinamikoa (5): Hizkuntza erabilera-esparru berri guztietan erabiltzen da.
- Hizkuntza aktiboa (4): Erabilera-esparru berri gehienetan erabiltzen da.
- Jasotzailea (3): Erabilera-esparru berri askotan erabiltzen da.
- Errepikakorra (2): Erabilera-esparru berri batzuetan erabiltzen da.
- Minimoa (1): Erabilera-esparru berri gutxitan erabiltzen da.
- Geldia (0): Ez da erabilera-esparru berrietan erabiltzen.

**6. faktorea:** *Hizkuntza eta literatura irakasteko materialak*

- Ortografia ezarrita dago, tradizio literarioa ere badu hizkuntzak. Eguneroko komunikabideetan, hezkuntza eta administrazioan ere badu lekua (5).
- Idatzizko materialak daude, eta umeei eskolan hizkuntza horretako literatura garatzen dute. Dena den, hizkuntza administrazioan ez da idatziz erabiltzen (4).
- Idatzizko materialak daude, eta umeei idazteko modua irakasten zaie horiekin, baina literaturak ez du babes handirik (3).
- Idatzizko materialak badauden arren, komunitateko zenbaiten eskura baino ez daude horiek. Eskolan ez da literatura irakasten (2).
- Komunitateak ortografia praktikoa bat ezagutzen du, eta horren inguruko zenbait material prestatzen hasi dira (1).
- Komunitateak ez du hizkuntzaren ortografia ezagutzen (0).

**7. faktorea:** *Gobernu eta instituzioen jarrera eta hizkuntzarekiko politikak*

Hizkuntzen ofizialtasunaren inguruan, munduan zehar politika ezberdinak topa ditzakegu:

Batzuek hizkuntza bakarra dute ofizial, eta hango gainerako hizkuntzak bigarren mailan uzten dituzte. Beste batzuek hizkuntza guztiak dituzte ofizial, hau da, legearen arabera

ofizialtasun maila bera daukate. Dena den, horrek ez du ziurtatzen praktikan ere ofizialtasun bera izango dutenik.

Gobernuak hizkuntzei ematen dien babesaren arabera mailak honakoak izan daitezke:

- Denei babes bera (5): Legeak herri baten hizkuntza guztiak babesten ditu, eta gobernuak baditu hizkuntza politikak hizkuntza guztiak bizirik mantentzeko.
- Babes ezberdinak (4): Gobernuak bereziki babesten ditu hizkuntza gutxituak, baina hizkuntza dominatzailea eta menperatua ez dira erabilera-esparru berberetan erabiltzen. Normalean dominatzaileak betetzen du arlo publikoa, eta gutxituak pribatua. Dena den, gutxituak prestigio handiko erabilera-esparruak ere baditu, esaterako zeremonietan.
- Asimilazio pasiboa (3): Gobernuak ez du hizkuntza gutxituaren alde ezer egiten. Dominatzaileak betetzen du arlo publikoa, eta gutxituak pribatua, baina bigarren horrek prestigio gutxi du.
- Asimilazio aktiboa (2): Hizkuntza gutxituaren hiztunek beren hizkuntza alde batera uztera bultzatzen ditu gobernuaren hizkuntza-politikak, eta hezkuntzan ere ez du lekurik.
- Indarrezko asimilazioa (1): Gobernuak hizkuntza dominatzailea babesteko politika du, eta hizkuntza gutxituak ez du inolako babesik jasotzen. Gobernuak ezikusiarrena egiten du hizkuntza gutxituaren aurrean.
- Debekua (0): Hizkuntza gutxitua erabiltzea debekatuta dago erabilera-esparru gehienetan.

### **8. faktorea:** *Hiztunen hizkuntzarekiko jarrera*

Hiztunek hizkuntzarekiko jarrera desberdinak izan ditzakete. Gerta daiteke identitatearen oinarritzko osagaitzat hartzea, eta hizkuntza sustatzeko nahia izatea; edo hizkuntza erabiltzea, besterik gabe, hizkuntzarekiko inolako ardurarik gabe; edo hizkuntzaz lotsatzen delako bultzatu nahi ez izatea; edota hizkuntza oztopo gisa ikusi eta erabiltzeari uztea.

Unescoren arabera, jarreraren kontuan honako mailak bereiz daitezke:

- Hizkuntza komunitateko guztiek baloratzen dute beren hizkuntza, eta bultzatu nahi dute (5).
- Hitzun gehienek nahi dute hizkuntza mantentzea (4).
- Hitzun askok mantentzea nahi dute, eta beste askori berdin die edo dominatzailea nahiago dute (3).
- Hitzun batzuek mantentzea nahi dute, beste askori berdin die edo dominatzailea nahiago dute (2).
- Gutxi batzuek baino ez dute mantentzerik nahi; gehienei berdin die edo nahiago dute hizkuntza aldaketa gertatzea (1).
- Inor ez da hizkuntza gutxituaz kezkatzen, denek nahiago dute hizkuntza dominatzailea (0).

Jarrerari dagokienez kontuan hartu behar da jarrerak ez direla berez sortzen, normalean gobernuaren politikak eta hizkuntzaren testuinguru sozial eta ekonomikoaren ondorio direla.

**9. faktorea:** *Hizkuntzaren egoerari buruzko argazkiaren zati honetan dokumentazioa aztertzea tokatzen da*

Dokumentazioaren barruan idatzizko testuak zein audiobisualetan jasotako testigantzak hartu behar dira kontuan.

- Hizkuntzaren gramatika eta hiztegiak daude, bestelako material ugari, eta kalitate handiko grabazio on asko daude (5).
- Gutxienez gramatika on bat dago, hiztegi batzuk, eta kalitate handiko grabazio batzuk daude (4).
- Baliteke gramatika on bat egotea, hiztegi batzuk eta testu batzuk. Kalitate maila ezberdineko grabazioak ere badaude (3).
- Hitzen zerrendak daude, eta testu batzuk ikertzaile linguistikoaren eskura. Audioz edo bideoz egindako grabazioak kalitate ezberdinekoak dira (2).
- Hitzen zerrenda motzak, eta testuen zatiak. Grabaziorik ez dago, eta egonez gero kalitate txarrekoak (1).
- Ez dago hizkuntza horretan bildutako materialik (0).

Amaitu aurretik aipatu nahi dut 9 faktoreek batera ematen digutela hizkuntzaren argazki zehatza, bakoitzak bere aldetik hartuta ez liguke informazio handirik emango.

### **Bizitasun etnolinguistikoaren teoria**

Bizitasun etnolinguistikoa da hizkuntza eta kultura aldetik ezaugarri bereziak dituen giza talde baten berezko indarra.

Bizitasun etnolinguistikoa kontzeptu soziolinguistikoaren inguruko ikerlanak asko dira, eta denak aipatzeak luze joko lukeenez, Giles, Bourhis eta Taylorren ikerlanaz (1977) baino ez dut hitz egingo, horietan izan baitziren kontzeptu horren sortzaileak.

Azpiatal honetan hizpide dugun ikerlanaren arabera, bizitasun etnolinguistikoa ezagutzeko, bizitasun objektiboa eta subjektiboa hartu behar ditugu kontuan.

**Bizitasun objektiboaren** barruan ere honako bereizketa egiten dute Giles, Bourhis eta Taylor ikerlariek:

- Alde batetik ***bizitasunaren faktore objektiboak***: Faktore horiek hiru multzotan biltzen dituzte: **estatusa** (hizkuntzaren prestigioarekin lotuta dago, eta prestigio horren gainean eragiten duten faktore ekonomiko, sozial, sozio-historiko eta linguistikoekin ere bai), **demografia** (hiztun kopurua, horien banaketa lurraldean zehar eta taldearen joera demografikoak), eta **sostengu instituzionala** (hizkuntzak erakundeetan duen postuarekin lotuta).

Faktore bakoitzaren neurria altua, ertaina edo txikia izan daiteke, eta denak batera bilduta faktore objektiboen gaineko bizitasun etnolinguistikoa aterako zaigu.

- Eta bestetik, ***hizkuntzaren eta talde etnikoen arteko harreman eta prozesu psikosozialak***: bizitasun etnolinguistikoaren alde psikosozialak aztertzeko, Giles eta bere lankideek Henri Tajfel psikologoaren teoria (1974) hartu zuten

abiapuntu nagusitzat. Horren teoriak honako kontzeptu hauek erabiltzen zituen taldeen arteko harremanak ulertzeko: **kategorizazio soziala, gizarte identitatea, konparazio soziala, bereizketa soziologikoa, alternatiba kognitiboak** eta **talde estrategiak**.

Kontzeptu horiek ez dira independenteak; aitzitik, kate beraren ondoz ondoko begiak dira. Hasteko **kategorizazio soziala** dugu. Horren arabera pertsonen artean arrunta da pertsonak multzo edo kategorietan sailkatzea (beltzak/zuriak, euskaldunak/erdaldunak...). Multzoak daudenez, pertsona bakoitza talde baten barruan identifikatuko du bere burua, hau da, **gizarte-identitatea** izango du, eta identitate hori markatzeko, identitate berekoak ez diren horiengandik **bereizten** saiaturiko da, nola eta **konparazioaren** bidez. Konparazioaren ondorioz emaitza positiboa lortzen bada, gizarte identitatea positiboa izango da; bestela, talde horretakoak beste taldekoak baino txartoago badaude, garrantzizkoa da talde menperatuko kideek **alternatiba kognitiboak** izatea egoera aldatzeko. Mendeko zein goiko taldeek egoera aldatzeko zein iraunarazteko erabiltzen dituzten estrategiak **talde estrategiak** dira.

**Bizitasun subjektiboa** ere badugu, bizitasun objektiboaren osagarri. Nik esango nuke bizitasunaren atal honetan gizarte horretako kideen iritzi eta jarrerak islatzeko modua bilatzen dela. Horretarako ikerlariak galdetegi bat prestatu zuten, “Notes on the construction of a subjective vitality questionnaire for etnolinguistic groups” (1981) izenburuko artikuluan plazaratu zutena, gizarte horretan bizi denaren ikuspegia ezagutzeko, bizitasun objektiboan agertu zaizkigun faktore bakoitzaren inguruko galderak dituen.

Ikertzaileen arabera, bizitasun objektiboa eta subjektiboaren emaitzak uztartuta, errazago izango da neurtzea talde etnolinguistikoko baten aukerak komunitate berezi bezala bizirauteko (kultura nagusiarekiko ukipenean).

### **Fishmanen Belaunaldien Arteko Eten-urratzea Neurtzeko (BAEN) eskala**

Fishman ere badugu hizkuntzen egoeraz kezkatuta (1991). Honek argi du hizkuntza bat indarberritu nahi badugu, oro har, hiru pausu hauek jarraitu behar direla:

- **Estrategia:** Diagnostiko zehatza egin. Hemen, orain eta ditugun baliabide jakin hauekin, hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko jarraipena indartzeko funtzio egokienak zein diren argitzea.
- **Taktikak:** Funtzio horiek indartzeko proiektu berriak antolatu eta hezurmamitzea.
- **Ebaluazioa:** Zer atara den ondo, zer erdizka eta zer gaizki, ondo berezi behar dugu. Emaitzen kausak ere bilatzen saiatu behar dugu.

Edozein hizkuntza planak eduki behar ditu atal hauek. Dena den, atal honetan lantzen ari garena hizkuntzaren egoera ezagutzeko modu ezberdinak dira, diagnosis bera, eta diagnosis egiteko Fishmanek BAEN eskala proposatzen digu (belaunaldien arteko eten-urratzearen neurria). Horretan 8 maila bereizten ditu Fishmanek, eta eskalan zenbat eta maila altuagoa izan, hizkuntzak jasan duen eten-urratzea handiagoa da; zailago, beraz, hizkuntza aldaketari (language shift) buelta ematea.

**8. maila:** Egun ez dago hiztun herririk, inork ez du hizkuntza hori eguneroko jardunean erabiltzen. Hitzun solteak baino ez daude, gero eta zaharragoak. Amerikako eta Australiako hizkuntza askoren egoera dugu hauxe.

**7. maila:** Hitzun herririk ez dago, bai, ordea, hiztun-talde bakarra, herriko zaharrak. Elkarren ondoan bizi dira, eta horri esker badute elkarren arteko harreman sarerik.

**6. maila:** Familian, lagunartean, auzoan eta kale-bizitza hurbilenean hizkuntza indarra galtzen dabil. Hitzun zahar zein gazteak egon badaude, baina gero eta erabilera-esparru gutxiagotan erabiltzen dute. Hizkuntza jakin arren, etxean, auzoan, eta lagunartean gero eta gehiagotan erabiltzen dute hizkuntza dominatzailea.

**5. maila:** Hitzunak elkarren ondoan bizi dira auzo eta herrietan eta hizkuntza ahoz erabiltzen dute eguneroko jardunean, baina ez dakite hizkuntza horretan idazten, ez irakurtzen. Horretarako hizkuntza dominatzaileira jotzen dute. Era horretan, harreman-sare eta interakzio modu jaso eta formaletarako bidea ixten zaio hizkuntza gutxituari.

**4. maila:** Jendeak hizkuntza gutxitua badaki eta erabiltzen du, baina hezkuntzan hizkuntza dominatzailea erabiltzen da.

**3. maila:** Hitzun-elkarte sendoa dago, hitzez zein idatziz ondo moldatzen dena, baina lan-mundua hizkuntza nagusiaren esparrukoa da.

**2. maila:** Komunikabideetan eta administrazioan hizkuntza gutxitua erabiltzen da, baina hortik goragoko mailetan ez.

**1. maila:** Hizkuntzak unibertsitate mailan, eta goi-mailako lanpostuetan ere lekua du, baina independentzia politikoak berez eman dezakeen segurtasun osagarririk gabe.

Eskala honi begiratuta, honako ondorioa ateratzen dut: iruditzen zait horrekin hizkuntza osasuntsu batetik arrisku bizi-biziraino eta hiltzeraino jarraitzen den bidea islatzen dela. Hasierako mailetatik hasita, badirudi independentzia politikorik izan ez arren, erabilera-esparru guztiak betetzen dituztela hizkuntza osasuntsu guztiek, eta gero mailaz maila, erabilera-esparruak galtzen doazela: goi-mailako lanpostuak, komunikabide eta administrazioa, lan-mundua, hezkuntza, esparru formalak (idatzizko forma oso zabaldua eta agian ezarrita ere ez dagoelako), esparru informalak (familia, lagunartea, auzoa).

Erabilera-esparru galera horren ondorioz, badirudi hizkuntzak indarra eta prestigioa galtzen dituela belaunaldi gazteenen artean. Hizkuntza belaunaldi berrietan galtzen hasten da, eta gero eta gehiago murrizten da hitzun kopurua, eta gero eta altuagoa da hitzunen batez besteko adina.

Eskala horretan ere Fishmanek izugarritzko garrantzia ematen dio hitzunak demografikoki kontzentratuta egoteari, horixe baita bere ustez hizkuntza sano guztien egoera naturala.

Hiru teoria horien argitan, iruditzen zait hizkuntza egoera ezagutzeko honako puntuak azpimarratu behar direla:

- **Hiztun-kopurua**

Ipar-Ameriketako bizitasun handieneko hizkuntza navajo da eta hiztun gehien dituen ere bada (140.000 inguru). Navajoren egoera baino hobea náhuatl hizkuntzarena da (1.400.000 hiztun inguru), eta ketxua, aimara, eta guaraniera besteak baino egoera hobean daude. Guaranierak egun Paraguayko biztanleen hiru laurdenak hitz egiten du (2.500.000 hiztun).

Dena den, hiztun kopuruari dagokionez ez dugu ahaztu behar, batetik hiztun kopurua ez dela neurtzen erraza; izan ere askotan hizkuntza gutxitua duten etnia askotan gertatzen da etnia horren taldeko zatitza josten dutela euren burua etnia horren hizkuntza hitz egiten ez dutenek ere.

Eta bestetik, hiztun kopurua soilik ez dela nahikoa hizkuntza baten egoera neurtzeko. Horren adibide karitiana<sup>31</sup> (Brasil) hizkuntza dugu. Hizkuntza hori aztertu zenean 185 hiztun zituen, adin guztietakoak, eta kopurua handia ez bada ere, komunitate osoan 191 pertsona zeudela kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu %96k hitz egiten zuela eta gainera ume gehienek dute karitiana lehen hizkuntza. Beraz, arriskuan al dago? Kopurua bera baino adierazgarriago gerta daiteke hiztunen portzentajea komunitate osoaren gainean.

Gainera, milioi hiztun dituen hizkuntza ere arriskuan egon daiteke. Yoruba hizkuntzak, 20 milioi biztanle ditu eta hala ere unibertsitatean ez du lekunik. Ingelesak betetzen du leku hori eta hango jende askok kezka du hizkuntzaren etorkizunaren inguruan.

- **Belaunaldien arteko transmisioa**

Kopurua baino askoz ere garrantzikoagoa da hizkuntza ondorengoei transmititzea. Hizkuntza seme-alabei transmititzen ez zaienean, hiztunak asko izan arren, hizkuntza heriotzatik hurbil-hurbil dago. Adibidez, Atkan<sup>32</sup> (Estatu Batuak) 1990ean aleutianoak 60 hiztun zituen, 1994an 44, horien artean gazteenak 20 urte ingurukoak. Horrela jarraituz gero, hizkuntza hori 2010 urtean baino lehenago desagertu liteke.

Crystalek (2001) emandako datuen arabera, Kanadako erroldan, 1981-1996 urteen bitarteko datuetan hiztun kopuruari soilik begiratu gero, ikusten zen 15 urte horietan hizkuntza indigena dutenak dituzten kopurua %24an igo zela, ugalkortasun handiagatik; baina arretaz begiratu gero, argi dago 50 hizkuntza aborigen gehienak atzeraka zihoazela eta azken datuen arabera hizkuntza haietatik 3 baino ez zeudela salbu: inukituita, klistenoa eta txipeva hizkuntzak.

Atzerakada horren adierazle nagusia zen etxean hizkuntza indigena hitz egiten zutenen kopurua %6an baino ez zela handitu. Hizkuntza etxean erabiltzeak garrantzi handia dauka, eta are handiagoa isolatuta dauden eremuetan. Bizitasun handieneko hizkuntzetan %70ek erabiltzen dute bere hizkuntza etxean, bizitasun txikienekoetan %30a.

---

<sup>31</sup> Yamamoto (1997)

<sup>32</sup> Crystal (2001)

Atal honen barruan garrantzizko lekua du erabiltzaileen adinak. Horrexek erakusten baitu zenbateraino den eraginkorra belaunaldi batetik besterako transmisioa. Hitzunen adina zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta arrakastatsuagoa da belaunaldien arteko transmisioa. Hitzunen batez besteko adina gora joateak, ordea, hizkuntza galtzeko bidean doala adieraz dezake.

Kanadako kasu horretan ere, 85 urtetik gorakoen % 60k erabiltzen zuten ama hizkuntza etxean, 40-44 urte bitartekoen %30, eta 5 urtetik beherakoen kasuan %20. Hizkuntza indigena guztietan hitzunen batez besteko adina 28tik 31ra pasa zen urte horietan. 1981n 5 urtetik beherako umeen % 91k hitz egiten zuen hizkuntza indigena etxean, 1996an, ordea, ume horiek 21 urte zituztenean, %76k baino ez zuen erabiltzen. Beraz, hizkuntza aldaketa gertatzen den adina ere oso inportantea da. Txikitan familiarekin lotuago daude eta horregatik normalagoa izaten da etxeko hizkuntza erabiltzea. Baina nerabezarotan, lagun taldearen eraginpean eta lan merkatuan sartzen diren urteak oso garrantzizkoak dira eta hizkuntza nora doan adieraz dezakete.

### • Erabilera-esparruak

José María Sanchez Carrionen arabera(Txepetx) (1981), esparrua arlo linguistikoaren eremu bat da (ez du zertan fisikoa izan, burukoa ere izaten da askotan), hizkuntzak betetzen dituen eginkizunen banaketarekin estuki lotuta, eta eremu horrek baldintzatzen du bertan dauden pertsonen portaera linguistiko eta soziala.

Hizkuntzalari horrek zazpi esparru bereizten ditu:

- Norberaren identitatea
- Familia hizkuntza
- Laneko hizkuntza
- Herriko hizkuntza
- Nazio hizkuntza
- Kultura hizkuntza
- Nazioarteko hizkuntza

Fishmanek (1991), ordea, hizkuntza erabiltzen den testuinguru sozial ezberdinak adierazteko “domain” kontzeptua erabiltzen du, eta honakoak bereizten ditu:

- Etxea eta familia
- Auzo hurbila eta lagunartea
- Lan mundua
- Aisialdia, kirolak eta jokoa
- Eskola
- Administrazioa
- Eliza
- Goi mailako teknologia, ekonomi sareak, agintaritza eta ikerketa
- Informazio eta zabalkunde mundua

Hizkuntzaren egoerari buruz hitz egitean, erabilera esparruak aipatzea ezinbestekoa da. Ikusi besterik ez dago lan honetan bildu ditugun hiru teoria/artikuluak, horietan guztietan modu batean edo bestean agertzen direlako.



Argi dago erabilera-esparruen zerrenda norbanakoaren eremu hurbilenetatik edo pribatuetatik hasi, eta norbanakoaren mailatik urrutiratzen joaten dela, poliki-poliki eremu publikoagoetara pasatzeko, hau da, eremu txiki batean hasi, pertsonarengan bertan, eta gero eta eremu zabalagoetara pasatzen da.

Normalean hizkuntzaren galera prozesua erabilera esparru publikoenetatik hasten da eta, hizkuntza inbaditzailea, uzten bazaio, erabilera esparruak betetzen joaten da, mailaz maila, esparru pribatuenetara heldu arte. Familia hizkuntza eta norberaren identitatea hizkuntza gutxituaren azken gotorlekuak izaten direla ematen du.

Iruditzen zait erabilera esparru pribatuetan (norberaren identitatea, familia, lagunartea, auzo hurbila) hiztunak zeresan handia daukala, eta hiztun komunitateak hala nahi badu, tartean debekurik ez badago, aukera handia daukala erabilera esparru horiek bere hizkuntzarentzako gordetzeko. Baina ez dugu ahaztu behar hiztun horiek bizi diren testuinguru soziolinguistikoaren eragina ere jasoko dutela, eta arlo publikoan, nolabait esatearren, administrazioan, hezkuntzan, lan munduan, gobernu mailan hizkuntza gutxituari inolako laguntza edo lekurik aitortzen ez bazaio, edo oso sustapen urria ematen bazaio, horrek eragina izango duela hizkuntzaren prestigioan, hiztunen hizkuntzarekiko jarreretan eta, oro har, hizkuntzaren erabileran arlo publiko zein pribatuetan.

Beraz, nik esango nuke hiztun kopurua ugaritzea eta belaunaldien arteko transmisioa ziurtatzen badugu, nolabait mantenduko dugula hizkuntza eremu pribatuetan erabiltzeko gaitasuna. Gaitasuna diot, hiztun gaituak egoteak ez baitu ziurtatzen erabiliko dutenik. Txepetxek ere argi utzi zuen hizkuntza bat erabiltzeko ezagutzaz gain, motibazioa ere izan behar dela, eta motibazioa edo hizkuntzaren aldeko jarrera ez da lortzen hizkuntza hiztunari erakargarri gertatzen ez bazaio, eta gizartean, oro har, zenbat eta gutxiagorako balio/erabili hizkuntza, orduan eta motibazio txikiagoa hiztunen aldetik.

Horregatik, hiztun kopuru aldetik zein belaunaldien arteko transmisio aldetik gaitasuna ziurtatuta badugu, hizkuntzak betetzen dituen beste erabilera esparru publikoetan ere lekua eskaini behar diogu hizkuntzari, hiztunek senti dezaten beren hizkuntzak edozertarako balio duela, eta edozertarako erabil dezaten.

Esango nuke hiztunen eskubideak errespetatuak izan daitezzen hizkuntza guztiek lekua izan behar dutela hezkuntzan, lan munduan, komunikabideetan, administrazioan eta abarretan. Hori ideala izango litzateke, baina errealitatea bestelakoa da.

Munduko hizkuntzen txostenaren laburpenean<sup>33</sup> azaltzen denez, txosten hori egiteko hartu zuten hizkuntzen %59 ez da administrazioan erabiltzen, eta informatzaile askok adierazi dutenez, administrazio publikoarekiko harremanetan beren hizkuntzak erabiltzen badituzte, eragozpenak eta aurpegi txarrak baino ez dituzte jasotzen.

Hezkuntzari dagokionez, munduko hizkuntzei buruzko txostenaren laburpenak dio munduko hizkuntza gehienek ez dutela transmitituak izaten eta garatzen lagunduko dien eskola sistemarik, eta informatzaileen %33k aitortzen dute beren hizkuntza ez dela

---

<sup>33</sup> Marti eta beste (2005)

eskolan erabiltzen. Lehen ere ikusi dugu askotan eskola erabili izan dela hizkuntza dominatzailea inposatzeko.

Komunikabideetan ere hizkuntzen %47 ez dira erabiltzen (munduko hizkuntzen txostenaren laburpenaren arabera), eta gainerako % 53ren artean egoerak desberdinak dira: gutxi batzuk komunikabide guztietan erabiltzen dira, eta beste batzuek nolabaiteko presentzia dute.

Erabilera esparru guztiak betetzeak prestigioa ematen dio hizkuntzari, eta horrek hizkuntzaren erabileraren gainean aldeko eragina izango du. Beraz, hizkuntzekiko kezka duen orok kontuan hartu beharko ditu aipatutako esparruak.

- **Jarrera**

Desagertze bidean dauden hizkuntzen kasuan haiekiko jarrerak izugarritzko garrantzia du: zer sentitzen du hiztunak bere hizkuntza erabiltzen duenean? Harro dago? Ahal bestetan erabiltzen du? Aldeko jarrerarik ez dagoenean hizkuntzak beherako bidea hartzen du, eta askotan aldeko jarrerarik ezaren atzean arrazoi politikoak ere egon daitezke (Afrikako gobernu gehienak hizkuntza aniztasuna batasun nazionalaren kontrakotzat zuten).

Jarrera kontuak bizitasun etnolinguistikoaren barruan zein Unescoren artikuluan aipatzen dira. Artikulu horretan bitan agertzen da zatituta jarreraren atala, gobernuaren hizkuntzarekiko jarrera eta hiztunena. Nik ere bereizketa horren ildotik egingo dut hizkuntzarekiko jarrerak hizkuntzaren biziraupenean duen eraginari buruzko azalpena.

### *Hiztunen jarrera*

Hiztunen jarrera oso lotuta egoten da hizkuntzak zein horren hiztunek gizartean duten prestigioarekin, eta hiztunen identitatearen kontzientziarekin.

Nik esango nuke identitatearen kontzientzia dela, bizitasun objektiboaren maila psikosozialean aipatu dugun moduan, gizartearen barruan talde berezi batean sartuta zaudela sentitzea eta talde horretakoa izateari garrantzia ematea, zure identitatearen ezinbesteko osagaitzat duzulako. Identitatearen kontzientzia hori garrantzizkoa da jarreraren barruan, horrexek sortzen dituelako hiztun askorengan beren hizkuntzaren aldeko jarrera, eta jarrera horrexek bultzatzen ditu herri eta hiztun asko beren hizkuntzak biziberritu eta mantentzera. Honen adibide gisa hebreeraren kasua dugu, aurrerago azalduko dudana. Txepetxek berak ere (1981) izateko nahia (hiztuna hizkuntzaren alde lan egitera bultzatzen duen jarrera bat) aipatzen du hizkuntza bat biziberritzeko garrantzizko baldintza gisa.

Komunitate batek identitate kontzientziarik ez badu, gerta daiteke bere hizkuntzari balio txikiagoa ematea. Komunitate hori beste dominatzaileago baten aldean bizi bada, bigarren horrekin identifika daiteke eta bere komunitate propioa existitzen denik ere ukatu. Horixe gertatzen da Kaukasoa. Bertako suantarrak<sup>34</sup>, askoz gehiago diren georgiarrekin bizi dira (botere handiagoa dute hauek ere), eta askotan suantarrek georgiartzat aurkezten dute beren burua, eta bere hizkuntza georgiarra dela diote, baina

---

<sup>34</sup> Hagege (2002)

hori ez da egia. Bi hizkuntzak familia berekoak dira baina oso ezberdinak. Beraz, ezin da esan hizkuntza bera direnik.

Prestigioari dagokionez esan behar da faktore ekonomiko, sozial eta politikoetan duela oinarri eta hizkuntza baten prestigioa ez dela objektiboa, eta, beraz, ezin dela erraz neurtu.

Prestigioaren galerak askotan hiztunengan beren hizkuntzaren kontrako jarrera sortzen du:

- Alaskako hego-ekialdean, tlingit komunitatean, gurasoek utzi zuten beren hizkuntza alde batera, eta egun pentsatzen dute tlingitez hitz egitea atzerakoia eta baldarra dela. Uste dute beren seme-alabei tlingit hizkuntza irakatsiko baliote, ingelesa geroago ikasiko luketela, eta horrez gain, seme-alabei atzerapen mentala ere sortuko lieketela<sup>35</sup>.
- Nubio gazteenek eta hiritartuenek uste dute nubioa ez dela hizkuntza bat, idazten ez delako, eta hizkuntza hori edadetu atzeratuek baino ez dutela erabiltzen. Hori ustea baino ez da; izan ere, hizkuntza hori herri komunitateetan oraindik ere erabiltzen da<sup>36</sup>. Baina egia da hizkuntza asko herriko bizimoduarekin edo lehenaldiarekin lotzen direla, eta erlazio hori askotan ez dela hizkuntzetarako mesedegarria izaten. Badirudi hirietako bizimoduarekin, lan industrialarekin eta geroarekin erlazionatzen bada, prestigio gehiago duela.
- Yaaku tribukoek (Kenyako erdi-iparraldekoak) familia kutxitikoaren hizkuntza bat hitz egiten zuten. Yaaku tribukoak ehiztariak eta arrantzaleak ziren eta bizimodu pobrea zuten. Bizimodua hobetzarren gizon asko masai tribukoaren artzain hasi ziren lanean. Horren ondorioz, masai hizkuntzak eta kulturak gero eta eragin handiagoa izan zuten yaakuen gainean. Harreman horien ondorioz ere, bi tribuen arteko ezkontzak ugartu ziren eta yaaku tribukoak artzain bihurtu ziren. Ezkontza horien seme-alabei masai hizkuntza irakasten zitzaizkien; ez, ordea, yaaku hizkuntza. Ondorioz, yaaku tribukoak bildu ziren eta erabaki zuten masai hizkuntza eta kultura beraiena baino prestigio handiagokoa zela, eta yaaku hizkuntzaren hiztegia ez zegoela prest artzainen gizarte batek behar zituenak adierazteko. Beraz, erabaki zen yaakuen seme-alabei ezin zitzaizkela hizkuntza hori irakatsi eta handik aurrera yaaku hizkuntza alde batera utziko zutela, eta masai hizkuntza hartuko<sup>37</sup>.
- Afrikako hegoaldeko khoisan hizkuntza-familiakoan kheokea era ere nahita utzi zuten alde batera hiztunek, eta norvegiera aukeratu zuten. Haien kolono holandarren morroiak ziren, eta, ondorioz, norvegierak nederlanderan prestigio gehiago zuen<sup>38</sup>.

Dena den, argi dago prestigioa ez dela hizkuntzaren beraren barruko ezaugarria, baizik eta hizkuntza hori erabiltzen den testuinguruaren barrukoa. Hori argi ikusten da hizkuntza batzuk, inguruko baldintzak aldatuta, prestigioa izatetik ez izatera pasatu direlako. Esaterako, 1429an Tenotxitlan (lehenago azteken hiriburua, egun Mexiko da)

---

<sup>35</sup> Hagege (2002)

<sup>36</sup> Hagege (2002)

<sup>37</sup> Hagege (2002)

<sup>38</sup> Hagege (2002)

eta Texkoko eta Tlakopan estatuen arteko aliantzan sinatu zenetik azteken inperioa izugarri zabaldu zen, aliantza horretan egoera dominatzailea lortu zutelako.

Baina espainiarrak heldu ziren Cortésekin batera, eta biolentziaren bidez azteken inperioa suntsitu zuten oso epe laburrean. Eraso horien ondorio linguistikoa izugarriak izan ziren: XVI mendearen lehenengo erdialdean hizkuntza eta hiztun asko erail zituzten. Náhuatla bera ere oso epe laburrean pasa zen hizkuntza dominatzailea izatetik, galtzaileen hizkuntza izatera, prestigioak behera egin zuen ezinbestean.

Beste batzuetan, arrazoi linguistikoez kanpoko zioengatik hizkuntza bati aitortzen zaio ofizialtasuna, besteak alde batera utzita, edo eleaniztasun egoera batean ere, hizkuntza bat hartzen da harreman hizkuntzatzat, eta horrexek ematen dio prestigio gehiago aukeratutako hizkuntzari. Horren adibidea sango hizkuntza dugu. Afrika Erdialdeko Errepublikak hizkuntza nazionaltzat zuten. Estatus hori emateak prestigio ematen dio hizkuntza horri eta era berean kendu leku eskualde horretako gainerakoei.

### ***Gobernuaren jarrera***

Gobernuaren jarrera bertako hizkuntzekiko ezberdina izan daiteke oso, herri batetik bestera. Jarrera hori hizkuntzei beren lurraldeetan ematen dien ofizialtasun mailan, zein legetan aitortutako ofizialtasun maila hori errealitatean gauzatzeko martxan jartzen dituen egitasmoetan islatzen da.

Munduko hizkuntzen txostenaren laburpenean (2005) esaten denaren arabera, herri batzuek ofizialtasun maila bera aitortzen diete bertako hizkuntza guztiei:

- Suitzan frantsesa, alemana, italiara eta erromantxera dira hizkuntza ofizialak.
- Luxenburgon ere frantsesa, alemana eta luxenburgera dira ofizialak.
- Paraguayn gaztelania eta guaraniera.

Hala ere, batzuetan hizkuntza guztiei ofizialtasun maila bere aitortu arren, hori ez da errealitatean gauzatzen, gobernuek ofizialtasun hori bermatzeko ezer gutxi egiten dutelako. Munduko hizkuntzen txostenaren laburpenean adierazten den bezala, Ekuadorreko waoraniera eta zaparo hizkuntzen informatzaileek onartu zuten hizkuntza horien ofizialtasun maila aitortuta egon arren, praktikan ez zela islatzen.

Beste herri batzuek estatuko hizkuntza bat hautatzen dute eta gainerakoei koofizialtasuna aitortzen diote, bakoitzari bere lurraldean:

- Espainian euskara, katalana, eta galiziera koofizialak dira gaztelaniarekin batera, bakoitza bere lurraldean.
- Danimarkan faroerari eta inuiterari aitortzen zaie koofizialtasuna danierarekin batera.

Frantziaren kasuaren antzekoak ere badaude munduan zehar, hau da, lurralde osoan hizkuntza bakarra da ofiziala, eta bertako gainerako hizkuntzekin ezikusiarrena egiten du estatuak, ez die inolako ofizialtasunik aitortzen.

Ofizialtasunaren auziarekin amaitzeko esan nahiko nuke hizkuntzetarako ofizialtasuna ez litzatekeela arazo izango ofizial aitortutako beste baten ondoan biziko ez balira; bata

ofizial izateak eta bestea ez hasieran aipatu dugun ekidin beharreko hierarkizazioa sortzen duelako.

Argi dago gobernuen hizkuntzekiko jarrera legeetatik harantzago doala, eta hizkuntza bat benetan babestu nahi bada, benetako neurriak hartu behar direla hizkuntza horren egoera hobetzeko. Askotan hizkuntza baten alde ezer ez egiteak ere gobernuaren jarrera islatzen du, kontrako jarrera, hain zuzen; gaixorik dagoenari botikarik ez ematea, hiltzen laguntzea ez al da?

## ***10- BA OTE DAGO HIZKUNTZA BIZIBERRITZERIK? HAINBAT ADIBIDE***

Hizkuntza egoerari eta arrisku mailei begiratuta, badirudi arrisku bizi-bizian edo desagertuta daudenek salbatzeko esperantzarik ez dutela. Baina munduan badugu adibide bat egoera horietan esperantza eman ahal diguna, hebreerarena, hain zuzen. Hizkuntza hori hilda egon zen, ahozko erabilera galdu zuen guztiz (idatzizkoa gorde arren), eta hala ere, egun bizirik dago. Mendeetan zehar hilda egon ostean, ahozko komunikaziorako erabiltzen hasi zen berriro ere, hiztun komunitatearen identitatearen kontzientziari eta borondateari esker gehien bat, nire ustez.

Hizkuntzen heriotzari buruzko gai honetan itxaropenari bidea ireki dion adibidea delako, Hagegek (2002) dioenaren ildotik, hizkuntza honen sasi-heriotza eta biziberritzea azaltzen saiatuko naiz.

Hebreera familia kamito-semitarraren mendebaldeko adarra da, orain dela 3000 urte erabiltzen zen Israeleko estatuan, eta esan dezakegu egun ere leku berean erabiltzen dela izen bereko hizkuntza hori. Hainbeste urte tartean daudelarik, eta hizkuntza bolada luze batez ahoz erabili ez zela kontuan izanda, ezin genuen espero orain dela 3.000 urtekoa eta egungoa berdinak izatea; baina hizkuntza ezberdin bi direnik ere ezin esan.

Biblia aurreko hebreeraren testigantza gisa, toponimoak eta hitz solteak, zein K.a XIV. mendeko dokumentu batzuk (Tell el-Amarnako aztarnategian aurkitutako glosak) ditugu.

Geroxeago, Bibliaren bitartez, hebreeraren testigantza zabala jaso dugu; izan ere, bibliako hizkuntzak islatzen du garai hartako hebreera literarioa, eta neurri apalagoan bada ere, hizkuntza horren ahozko erabilerak ere badu isla liburu horretan.

Bibliako garai haietan jada Juda erreinuak auzoko boteretsuak zituen, babiloniarrek eta egiptiarrek, eta ondorioz, beti bataren edo bestearen lagun/morroibili behar izaten zen. K.a 600 urtean Juda erreinuak Nabukodonosor II.aren kontra jo zuen (babiloniarren erregea), baina ekintza horretan Judak ez zuen zortea aldeko izan, eta Nabukodonosorrek k.a 597. urtean, Jerusalemen kontra joan, Judako errege-erreginen familia, aristokrazia, apaizak eta judutar aberatsak harrapatu, eta Babiloniara eramane zituen.

10 urte geroago ere, babiloniarrek Jerusalem suntsitu eta tenploa botatzeaz gain, beste hainbat judutar eramane zituzten beren lurretatik kanpo.

Ikusi dugun moduan, jendea lekuz aldatze horiek ez diote hizkuntzaren biziraupenari batere laguntzen, eta Ziro handiak, errege pertsiarrak, Babilonia bere mende hartu ostean, judutarrei bere herrira itzultzeko eta tenploa berreraikitzeke agindua eman zienean, arameera (babiloniarren hizkuntza) zabaldua zegoen oso judutarren artean, hebreeraren kaltetan. Elebitasun horren isla, Bibliako erbesteratze ondorengo testuetan dugu, horietan elementu aramear ugari baitaude nahasirik.

Beraz, badirudi Judan k.a IV mendearen amaieratik judutar gehienek arameeraz eta hebreeraz bazekitela, eta hebrear ikasieneke grekoa ere bazekitela badakigu. Eleaniztasun egoera honetan, beste gertaera bi edo izan ziren hebreerari batere lagundu ez ziotenak:

- K.o 66.urtean, erromatarren boterepean, lehenengo gerra judutarra izan zen, judutarren mugimendu nazionalisten ondorioz. Orduan ere galtzaile atera ziren judutarrak, eta k.o 70.urtean, Titoren legioek suntsitu zuten Jerusalemgo tenploa bigarren aldiz.
- K.o 132. urtean Simón Barkokebasen eskutik, Palestinan berriro ere errebolta gertatu zen. Agintari horrek estatu judutarraren independentzia berrezarri, eta hebreera sustatu nahi izan zuen, baina iraultza hori ere k.o 135. urtean itzali zuten, eta ondorioz, judutarrei Jerusalem sartzeko debekatu zitzaizkien.

Ordutik aurrera, komunitate judutarra Galia, Germania eta Iberian zehar sakabanatu zen eta hebreera erlijio hizkuntza gisa gorde zen, baina ahozko erabilera 20 mendean zehar galdu zen, judutarrek, hebreera barik, bizi ziren herrien hizkuntzak erabiltzen zituzten eta.

Egun, jakin badakigu hizkuntza hori berriro ere biziberritu zela, eta biziberritze horretan aipatu beharreko izena dugu honakoa: Ben Yehuda.

Horren arabera, nazio eta hizkuntzaren biziberritzea banatu ezinezko ekintzak ziren, eta egia esan, lotura hori ez zaigu arraro gertatu behar, hebreeraren historia guztian zehar judutarren hebreeraren defentsa nazioaren independentziarekin lotuta egon delako, eta askatasuna galtzeak hizkuntzari berari ere galera ekarri dio.

Ben Yehuda izenez ezagutzen dugun Eliezer Perelman Lushkyn (Lituania) jaio zen 1858an. Bere heziketaz arduratzen zen osaba batek Polotskeko eskola talmudikora bidali zuen, bertan testu sakratuak eta rabinoen interpretazioak ikasteko. Hala ere, mundu erlijiosoaz gain, erlijioz kanpoko idazle judutarrak ere ezagutu zituen, eta horien bidez, hainbat gai politiko, sozial eta literarioen berri ere izan zuen.

Ben Yehuda 1881ean Palestinara joan zen bere familiarekin bizitzera, eta hantxe hasi zen bere familian (seme-alabekin etab) hebreera erabiltzen. Horrez gain, saiatu zen beste familia batzuk bultzatzen gauza bera egin zezaten, eta hasiera batean ez zuen emaitza onik lortu. Hala ere, hurrengo hamarkadan, 1945ez geroztik hain zuzen, aurrerapausoa igarri zen; izan ere, orduan hebreera zen Palestinan judutarren hizkuntza.

Aurrera egite hau kazetaritzari zor dio Ben Yehudak, kazetari lanetan ibiltzeak eman ziolako aukera hebreeraren aldeko deia zein berak sortutako hebreerazko hitz berriak zabaltzeko.

Beste aldeko faktore bat hezkuntza izan zen. Bera, gaixotasun baten ondorioz, ez zen hezkuntzan denbora luzean aritu, baina bere helburu bera zuten hainbat maisuk sortu zituzten klasean erabiltzeko hebreerazko manualak, eta irakasteko hebreera baino ez zuten erabiltzen (1989an hainbat haur-eskolatan hebreera baino ez zen erabiltzen).

Ben Yehudak ere ikusi zuen hizkuntza hori egungo testuinguruan biziko balitz, hizkuntza egokitu behar zela. Horretarako idatzi zuen hiztegi bat; lan ikaragarria benetan, hiztegia egiteko ordura arte hebreeraz idatzitako literatura guztia (erlijiosoa zein bestelakoa) erabili zuelako.

Gainera, 1904an beste hainbatekin batera hizkuntzaren komitea sortu zuen hezkuntzan zebiltzan maisuek eta maisu ez zirenek ere zalantzak non kontsultatu eta non argitu izan zezaten. Horiek proposamenak eta galderak egiten zituzten, eta komiteak horien inguruko iritzia ematen zuen. Horrez gain, zerrendak sortzeko zein hizkuntzaren arau batzuk zehazteko ardura zuen. Komiteak arrakasta handia izan zuen, gero eta kontsulta gehiago heltzen zirelako.

Hiztun komunitatearen parte hartze handi honek kontrakoa adierazten badu ere, ez dugu pentsatu behar biziberritze honek judutar guztiak alde izan zituenik; aitzitik, erlijio gizonak eta beste askok ere uste zuten hebreera hizkuntza sakratua zela, eta bere hartan utzi behar zela, ez zela ahoz erabili behar. Baina argi dago hizkuntza biziberritze honen arrakastaren gakoa hiztun komunitatearen nahian datzala.

Historia honen amaiera zoriontsu gisa honakoa: 1918ko abuztuaren 31n hebreera deklaratu zuten Palestinako hizkuntza ofiziala, arabiera eta ingelesarekin batera.

Horrez gain, beste hainbat adibide ere badugu, honakoak hainbat hizkuntza biziberritzeko saiakerak dira, arriskutik urrutiratzeko hasierako ahalegina. Etorkizunak esango digu hizkuntza horiek onera ala txarrera joan diren:

### ***Maoriera***

Zelanda Berriko gobernuak 1867an indarrean jarri zuen hezkuntza programan ingelesa baino ez zuen lekurik. Bertakoak lehendik ere bazeuden ingelesez alfabetatuta, eta alfabetatze horrek hezkuntza politika horrekin batera eragin kaltegarria izan zuen maoriera hizkuntzaren gainean. Horrek honako egoera sortu zuen:

Zelanda Berriko 300.000 biztanleen artean laurdenak baino ez zuen bertako hizkuntza erabiltzen, eta umeei ez zieten irakasten.

Orduan, maoriarrek eskatu zuten beraien hizkuntza baino irakatsiko ez zuten eskolak, eta 80.hamarkadaren amaieran horrelako sei eskola sortu ziren. 1982. urtetik aurrera murgiltze programa jarri zuten martxan, eta 1994an 13.000 ume zebiltzan horretan. Alde dauka maoriarren nahia beren hizkuntza gordetzeko eta identitatearen seinale hori ez galtzeko.

### ***Hawaiiera***

Hawai Estatu Batuetako estatua denez, argi dago hawaiarak ingelesa duela etsai. Hasiera batean haur-eskolako umeentzako murgiltze eskolak ekimen pribatuari esker sortu ziren. 1987an hiru murgiltze eskola zeuden eta hirurak onartu eta finantzatu zituen

hezkuntzako ministerio hawaiarrak. Dena dela, gauza bat daukate kontra, hawaieraren hitzun natural bakanak edadetuak direla eta desagertzen doazela. Horren aurrean gurasoak bultzatu nahi dituzte seme-alabekin batera hizkuntza ikastera. 1987an 2 eta 5 urte bitarteko 15 umek hitz egiten zuten hawaieraz.

### ***Navajo, Seneka eta Mohauera***

Ipar Ameriketako hizkuntza horiek hasi dira igartzen bertako komunitateek hizkuntza biziberritzeko duten interesaren eragina. Horrekin batera euskarri politikoa ere badute, hizkuntza eskubideak bermatzen dituzten neurriak ezarri direlako. Normalean hizkuntza biziberritzea autonomia politikoaren nolabaiteko mailarekin lotuta dagoenean biziberritze hori eragingarriagoa omen da. Hala gertatu zen Faroe irletan hitz egiten den faroera hizkuntzarekin, Danimarkatik nolabaiteko autonomia maila jaso zutenetik.

### ***Ainua***

Hizkuntza hori desagertzetik oso hurbil egon zen. Errepresio handia jasan zuen, eta ondorioz, une batean jarioasunez hitz egiteko gai zirenak 8 baino ez ziren, denak adinekoak. Hala ere, gobernuko politika berria etorri zen eta interesa jarri zuen hizkuntza hori biziberritzen. Lehen japonieraren hitzunez hizkuntza horren aurrean zituzten jarrera negatiboek eragina izan zuten Ainu hizkuntzaren hitzunen gainean eta horietako askori hizkuntza hori hitz egiteko gogoak kendu zioten. Egun, ordea, horietako asko hitzun aktibo bihurtu dira eta interes handia dago umeekin lan egiteko.

### ***Kaurna***

Australiako bertako hainbat hizkuntzak bizirik jarraitu dute komunitatearen ahaleginari, Australiako hizkuntzalariei eta bertako erakunde kultural eta linguistikoei esker. Askotan materialak eta deskribapenak onak badira, hilda dagoen hizkuntza ere biziberri daiteke. Horixe gertatu zen Australiako hegoaldeko kaurna hizkuntzarekin. Mende batez egon zen desagertua baina oso ondo dokumentatuta zegoenez, biziberritzearen aldeko mugimendu handi bat martxan jarri zenean, posible izan zen hizkuntza hori biziberritzea. Egia da hizkuntza “berri” hori ez dela lehengoa bezalakoa. Jendeak identitate marka moduan baloratzen duen heinean eta erabiltzen jarraitzen duen heinean, hizkuntza horrek funtzio eta hiztegi berria garatuko ditu, beste edozein hizkuntzak egiten duen modu berean.

## ***ONDORIO GISA***

Amaitzeko, hona hizkuntzen auziaren inguruan azpimarratu beharreko hainbat ideia:

- Hizkuntzen arteko hierarkiak eta hizkuntza aniztasunaren kontrako argudio arruntenek ere ez dute inolako oinarri linguistikorik. Argi dago hizkuntza guztiek edozein erabilera esparrutan eta edozertarako erabiliak izateko gaitasuna dutela. Egia da batzuek idazkera finkatu gabe dutela eta horrek esparru formaletarako bidea ixten diela, baina hizkuntza horren idazkera garatu ez bada, ez da hizkuntzak horretarako balio ez duelako; baizik eta testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoak horretarako aukerarik eman ez diolako.



Berdin gertatzen da beste edozein arlotan, hizkuntza bat zeregin zehatz baterako ez erabiltzeak ez du esan nahi hizkuntzaren ezaugarri linguistikoek horretarako gaitzen ez dutenik, baizik eta arlo horretan garatzeko aukerarik eman ez zaiola.

Beraz, hainbat hizkuntzen kontrako aurreiritziak baztertzeko hasi beharko genuke eta hizkuntza guztien balioaz kontzientzia hartzen hasi. Ekologia hain modan dagoen garai honetan, ekologiaren printzipioak aplikatu beharko genizkieke hizkuntzei ere. Horrela konturatuko ginagok hizkuntza bat galtzea hartz panda bat galtzea bezain garrantzitsua dela, eta hizkuntza bat galtzen denean munduari buruzko informazio iturri zabala ere galtzen dela

- Hizkuntza gutxitu baten hiztun moduan, ahalegindu behar dugu gure hizkuntzak erabilera-esparru guztietan lekua izan dezan, ahalik eta funtzio gehienetarako erabil dadin eta legetan aitortuta dituen eskubideak (baldin eta baditu) bete daitezten. Gobernuaren aldetik babesik ez dagoenean ere, hiztunek zeresan handia daukate eta ez dute etsi behar, hiztunen ekimenek eta identitatearen kontzientziak hizkuntzaren egoeran aldaketa handiak eragin ditzake eta, hebreeraren kasuan gertatu den legez.

Dena den, nire iritziz, bakoitzak berea defenda dezala leloak ez dio hizkuntzaren aniztasunari batere lagunduko. Hiztun komunitate bakoitzak berea sutsuki defendituko balu, agian hizkuntza gutxiago egongo liriteke desagertzeko arriskuan, baina kontuan hartuta herri batzuk eta besteen artean dauden desberdintasun ekonomikoak, ezin dugu espero hiztun guztiek beren hizkuntzak defenditzeko egoeran egotea; izan ere, argi dago zer jan ez duenari ezer gutxi arduratzen diola bere hizkuntza, behar oinarritukoagoak ditu eta. Horrelako kasuetan herri desberdinetako gobernuek bilduta lan handia egin lezakete mundu mailan hizkuntza aniztasuna defenditzeko.

- Hizkuntzen galeraren kausak aztertuta, argi ikusi da galera gehien atzean gizakiaren eskua dagoela. Naturak eragindako desagertpenak nekez ekidin daitezke, gizakiak eragindakoak, ordea, gehienetan bai. Horiek ekiditeko, batetik hizkuntza aniztasunaren aldeko diskurtsoa denon buruetan errotu beharko litzateke, eta hori beste hizkuntzekiko jarreretan islatuko litzateke. Ez genuke pentsatuko gurea onena dela eta leku batean hizkuntza bat baino gehiago egotea batasunaren izenean desagerrarazi beharreko egoeratzat hartu beharrean, aberastasuntzat hartuko genuke.

Hizkuntza bat baino gehiago bizi diren komunitate batean hizkuntza indartsu bat eta gutxituaren artean erabaki behar denean, gehienetan dominatzailearen alde egiten da, normaltzat hartzen dugulako hizkuntza dominatzailea duenak gutxitua ez jakitea; aldrebes balitz, ordea, ulertezina irudituko litzateke. Horrelako jarrerak hizkuntza indartsuen hiztunen berekoikeria islatzen dute. Ikasiko dute haien nirea, nik haiena ez, ordea, hizkuntza ikasteko haien esfortzua nik horien hizkuntza ikasteko egin behar dudana bezain handia izango ez balitz bezala. Horrelako jarrerak kalte handia eragiten diete hizkuntza gutxituei.

- Kausen artean ere ikusi dugu askotan hizkuntzen kontrako erabaki asko gobernuaren eskutik etorri direla. Boteredunen buruetatik desagertu beharko litzateke nazio batua lortzeko hizkuntza bakarra izan behar delako ideia, horrek mundua aniztasunera baino uniformetasunera eramaten duelako. Gainera azaldu dugu askotan gobernuek

beren eskuetan dituzten baliabideak (eskola, administrazioa, legeak, komunikabideak etab) erabili dituztela hizkuntza gutxituak ahultzeko edo desagerrarazteko eta dominatzailea inposatzeko. Sarri txarrerako erabili baditu ere, eskura ditu hizkuntzaren aniztasunaren alde erabiltzeko

Legeei dagokienez, erabili ditzake hainbat esparrutan hizkuntza gutxituen erabilera bermatzeko, eta hizkuntza horiei ofizialtasuna aitortzeko ere. Hizkuntzari ofizialtasuna legetan aitortzea nire ustez garrantzizkoa da, ofizialtasun horrek hizkuntzari eta hiztunei eskubide batzuk aitortzen dizkielako, eta praktikan ofizialtasun hori gauzatzen ez bada ere, hiztunak badu helduleku bat hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea aldarrikatzeko; eta prestigiotu egiten delako hizkuntza hiztunen artean. Hori erakusten du euskararen kasuak: ofizialtasunak eta eskolak (eskolen emaitza onekin) euskara hiztunen eta bertako biztanleen atean prestigiotu egin zen orain dela 25 urte inguru.

Eskola ere askotan hizkuntza dominatzailea inposatzeko erabili da, baina biziberritzeko bidean dauden hizkuntzen zenbait adibidetan eskola dabil biziberritze horretan laguntzen. Beraz, eskola ez da txarra hizkuntza aniztasunerako, nola erabiltzen den onuragarria ala kaltegarria izan daiteke.

Administrazioan ere komunitate berean bizi diren hizkuntza guztiei utzi beharko litzaieke lekua. Gainera administrazioan erabili ahal izateak prestigioa ematen dio hizkuntzari. Hemen batetik gobernuaren lana da garrantzizkoa, administrazioan hizkuntza gutxituei lekua aitortzeko, eta bestetik hiztunena, behetik nolabait derrigortzeko hizkuntza gutxitua erabiltzera, eskaria eta eskaeraren arteko oreka gordetzea da merkatuaren legea.

- Hizkuntza aniztasuna babestu nahi bada, batzuetan muga politikoak ahaztu behar dira, hizkuntza batzuk herri batean baino gehiagotan daudelako sakabanatuta, eta hizkuntza geratzen da herri bakoitzaren barruan indarrean dagoen hizkuntza-politikaren menpe. Horrelakoetan hobe izango litzateke hizkuntza hori duten herriak elkartzea eta hizkuntza hori babestea helburu lukeen erakunde bat osatzea.

Amaitzeko, hizkuntza egoera onean egoteko gogorarazi nahiko nuke onena dela hiztunak kontzentratuta bizitzea, hau da, elkarrekin bizi den hiztun komunitatea izatea, hizkuntzak ahalik eta erabilera esparru gehienetan erabiltzea, formaletan zein informaletan, horrek ere prestigioan eragina duelako, eta prestigio horrek izugarri lagunduko diolako belaunaldi batetik besterako transmisioari.

## BIBLIOGRAFIA

### PAPEREZKOAK

- CERNY, J (1998). *Historia de la lingüística*. Universidad de Extremadura.
- COMRIE, B, MATTHEWS, S eta POLINSKY, M (1997). *The Atlas of Languages. The Origin and Development of Languages Throughout the World*. London: Blomsbury.
- CONNELL, Bruce (1997). *Kasabe (luo)*. In *Iatiku* 4, 1997.
- CRYSTAL, David (1997). *Vanishing languages*. In: *Civilization*, February/March, 40-45.orr.
- CRYSTAL, David (1999). *Millennium Briefing: The death of language*. In: *Prospect*, November 1999, 56-59.orr.
- CRYSTAL, David (2000). *This man is worth £100.000 a year*. In: *High Life*, June 2000, 104-108.orr.
- CRYSTAL, David (2001). *La muerte de las lenguas*. Madrid: Cambridge University Press.
- DIAZ-FERNÁNDEZ, Antonio (2004). *Intentos de recuperación de la lengua mapuche en la provincia de Chubut*. In: *Actas del I Congreso Internacional "Educación, Lenguaje y Sociedad"* Instituto de Análisis Semiótico del Discurso, Universidad Nacional de La Pampa. Santa Rosa.
- DORIAN, Nancy (1980). *Language shift in community an individual: The phenomenon of the laggard semi-speaker*. In: *International Journal of the Sociology of language* 25, 85-94.orr.
- ETXEGOIEN, J.C (XAMAR) (2001). *Orekan. Herri eta hizkuntzen ekologiak*. Iruñea. Pamiela.
- FISHMAN, Joshua A. (1991). *Reversing Language Shift; Theoretical and Empirical Foundations os Asistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- FOLEY, W. (1986). *The Papuan languages of New Guinea*. Cambridge University Press.
- GILES, H; BOURHIS, R eta TAYLOR, D. M (1977). "Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations". In H. Giles (ed), *Language, Ethnicity and Intergroup Relations* (307-348). New York: Academic Press.
- HAGEGE, Claude (2002). *No a la muerte de las lenguas*. Barcelona: Piados.
- HERVAS Y PANDURO, L. (1800-1805). *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas, y numeración, división y clases de éstas según la diversidad de sus idiomas y dialectos*. Madrid: Atlas, 1979.

JUNYENT, Carmen (1999). *La diversidad lingüística. Didáctica y recorrido de las lenguas del mundo*. Barcelona: Ediciones Octaedro.

KRAUSS, Michael (1992). *The world's languages in crisis*. In: *Language* 68(1), 1-42.orr.

MARTÍ, F; ORTEGA, P; BARREÑA, A; IDIAZABAL,I; JUARISTI,P eta beste (2005). *Munduko hizkuntzei buruzko txostenaren laburpena*. Bilbo: Unesco etxea.

MORENO CABRERA, J.C (2000). *La dignidad e igualdad de las lenguas*. Madrid: Alianza editorial.

NETTLE, D eta ROMAINE, S (2000). *Vanishing voices*.Oxford: Oxford University Press.

PAGEL, Mark (1995). *Contribution to the Conservation of Endangered Languages seminar* (Universidad de Bristol, 21 de abril de 1995). In *Iatiku* 1.

SANCHEZ CARRION, J.M (1981). *El espacio bilingüe*. L.g.: Eusko Ikaskuntza.

STEINER, G (1967). *The Hollow Miracle*. In *Language and Silence: Essays on Language, literatura and the inhuman*. New York: Atheneum, 1967, 96.

TAJFEL, H (1974). *Social identity and intergroup behaviour*. In *Social Science Information*, 13, 65-93.orr.

TRASK, L.R (1997). *The History of Basque*. London / New York: Routledge.

UNESCO (2006). *En el punto de mira: Africa* .In *El mensajero del patrimonio inmaterial*. Número especial lenguas en peligro, septiembre 2006.

URANGA eta beste (2007). *Amerikako Hizkuntza Aniztasuna, Mexikotik Hego Muturrera*.

VJACESLAV.I (1992). *Reconstructing the past*. In *Intercom* 15, 1992.

WALTER, H (1997).*La aventura de las lenguas en occidente*. Madrid: Espasa-Calpe.

WURM, Stephen (1996). *Atlas de las lenguas del mundo en peligro de desaparición*. Paris/Camberra: UNESCO Publishing/Pacific Linguistics.

WURM, Stephen (1998). *Methods of language maintenance and revival, with selected cases of language endangerment in the world*. In *Matsumura (ed.) 1998*.

YALLOP, Colin (1982). *Australian aboriginal languages*. Deusth, Londres.

YAMAMOTO, A (1997). *A survey of endangered languages and related resources*”.In *Newsletter of the Foundation for Endangered Languages* 5, 1997.

ZALDUA, I (1995). *Noiz Arte Iraungo Du Euskarak?* Bilbao: Ediciones Mensajero.

### **WEB ORRIAK**

COLLEEN WALSH. *La muerte de las lenguas indígenas: la pérdida de la diversidad*. In [www.gacetahispanica.com](http://www.gacetahispanica.com) (2007ko martxoa).

GRIMES, B.F (2007) *Ethnologue*. In [www.ethnologue.com](http://www.ethnologue.com).

UNESCO Ad Hoc Expert Group on Endangered Languages.(2007) *Language Vitality and Endangerment*. In [www.unesco/cultura/es](http://www.unesco/cultura/es).